

**2024**  
**4.**hiruhilekoa

# EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

EKONOMIA, LAN ETA  
ENPLEGU SAILA  
*Ekonomia Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,  
TRABAJO Y EMPLEO  
*Dirección de Economía*



## EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA .....	3
EKONOMIAREN INGURUNEA .....	5
EAE-KO EKONOMIA .....	9
Ekoizpena eta enplegua .....	9
Barne eta kanpo eskaria .....	14
Prezioak, soldatak eta kostuak .....	21
Arlo publikoa .....	25
Arlo finantzarioa .....	27
Aurreikuspenak .....	34

## Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I) .....	5
Munduko ekonomia. BPGa (II) .....	7
Enpleguaren bilakaera .....	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera .....	32
2024ko eta 2025eko aurreikuspenak (I) .....	41
2024ko eta 2025eko aurreikuspenak (II) .....	42

## Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak .....	9
Jardueraren adierazleak .....	10
Eskariaren aldagaiak .....	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak .....	15
Esportazioak produktuen arabera .....	17
Esportazioen helmuga .....	18
Inportazioen jatorria .....	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa .....	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea .....	23

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	24
Lan kostuak .....	25
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-abuztua).....	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I) .....	28
Adierazle monetario eta finantzarioak (II) .....	30
Kreditu eta gordailuak.....	33
Ekonomia aurreikuspenak.....	35
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2024ko iraila) .....	37
Aurreikuspenak egiteko hipotesiak (2024ko iraila).....	39
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2024ko iraila) .....	40

## LABURPENA

2024ko hirugarren hiruhilekoan, EAeko ekonomia %1,8 hazi zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoko erritmoa berdinduta. Beraz, 2022aren hasieran lortu zen hazkunde handiaz geroztik (%6,8) BPGaren bilakaerak markatu duen moteltzeko prozesu leuna gelditu da. Hirugarren hiruhilekoko datua bat dator Ekonomia Zuzendaritzak urrian egin zuen aurreikuspenarekin, eta euroaren eremurako (%0,9) zein Europar Batasunerako (%1,0) zenbatetsi diren aldakuntza tasen oso gaineratik dago kokatuta.

Sektore ekonomikoen arabera analisiak iradokitzen du industriak ahultasun nabarmena duela eta bere balio erantsia %0,7 baino ez zela hazi aurreko urtearekin alderatuta, aldi horretan ekonomiaren guztizkoak izandako erritmoa baino askoz ere gutxiago. Hala ere, hobekuntza txiki bat nabari da aurreko hiruhilekoko %0,5aren aldean. Inguruko herrialdeek bizi duten ahultasunak azaltzen du sektoreak EAEn erakusten duen dinamismorik eza. Izan ere, herrialde horiekin harreman estua du euskal industriak. Eskari falta horri ziurgabetasun geopolitikoak, finantzaketa kostu oraindik handiak eta Txinatik datorren lehia bizia gehitu behar zaizkio, bereziki automobilgintzaren sektorean.

Eraikuntzak %1,5eko urte arteko hazkunde tasa eskuratu zuen hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago. Beraz, sektore horrek garatutako jarduera pixka bat bizkortu dela hauteman daiteke. Kostuek sektorearen bilakaera baldintzatzen dute eta ondorio kontrajarriak izaten ari dira. Alde batetik, lehengaien kostuek hazkunde tasa moteldu dute, baina, bestetik, eskulanaren kostuek inflazioarena baino hazkunde askoz handiagoak izan dituzte. Eskura dagoen koiunturazko informazioaren arabera, dinamismorik handiena obra zibilean dago.

Beste hiruhileko batez, zerbitzuak izan dira EAeko ekonomiaren hazkunde nabarmenaren oinarria. Oro har, sektorearen balio erantsia %2,2 areagotu zen aurreko urtearen aldean, bigarren hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. Jarduera taldeen arabera analisiak iradokitzen du talde guztietan konbergentzia gertatzen ari dela, dinamismo handiena dutenek hazkunde tasak moteltzen dituzte eta atzeratuenak neurri biziagoan berraktibatzen dira. Hala, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak gelditzeko zantzuak erakutsi zituen 2023ko bigarren seihilekoan, baina orain bere jarduera erritmoa berreskuratu du, %1,5eko aldakuntza tasa izan arte, ekonomiaren batez bestekotik hurbil. Aitzitik, sektore publikoari gehien lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) intentsitate pixka bat galdu dute, nahiz eta oraindik %2,6ko hazkunde esanguratsua lortu duten. Azkenik, gainerako zerbitzuen aldakuntza tasa hiru hamarren moteldu zen eta urte arteko %2,4ko hazkundera jaso zuen.

Eskariaren ikuspegitik, barne eskariaren sendotasunak eta kanpo saldoaren posizio neutroak bere horretan jarraitu zuten. Bai esportazio errealek bai inportazioek hazkunde positiboak lortu zituzten hirugarren hiruhilekoan, %2,0 eta %2,3 hurrenez hurren. Beraz, kanpo saldoaren ekarpena apur bat negatiboa izan zen, hamarren bat edo bi ingurukoa. Balio nominaletan, aldakuntza tasak pixka bat altuagoak izan ziren (%2,3 eta %2,4), eta gaur egun nazioarteko merkataritza hazten ari den tartean daude kokatuta, globalizazioaren garaian lortu ziren aldakuntza tasa handietatik oso urrun.

Lehenago ere adierazi den bezala, EAEko ekonomia barne eskariaren bultzadari esker hazten ari da; izan ere, barne eskariak hirugarren hiruhilekoan %2,0ko tasa eskuratu zuen, hots, aurreko datua baino pixka bat gehiago. Barne eskariaren bi osagai nagusiek aldakuntza tasa esanguratsuak lortu zituzten: %1,9ra iritsi ziren azken kontsumoko gastuaren kasuan, eta %2,0ra, berriz, kapital eraketa gordinaren kasuan. Bi agregatu makroekonomikoen arteko antzekotasun horrek iradokitzen du ekonomiaren hazkundera orekatua dela eta ez dagoela bi horietako baten mende. Kontsumoaren barruan, nabarmendu behar da familien kontsumoa suspertu egin dela eta ekonomia osoaren antzeko erritmoan eboluzionatu duela (%1,8). Bestalde, administrazio publikoen kontsumoak egonkor jarraitzen du %2,2 inguruan. Inbertsioari dagokionez, ekipamendurako ondasunetan egindakoa %2,3ra igo zen, eta gainerako inbertsioa, eraikuntzan egindakoa barnean hartzen baitu, %1,9ra.

Enpleguak erritmo onean hazten jarraitzen du. Hain zuzen ere, hirugarren hiruhilekoan lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruak %1,6 egin zuen gora urte arteko tasan, aurreko aldietan baino pixka bat gutxiago. Guztira, kalkulatzen da ia 15.800 lanpostu gehiago zeudela 2023ko hiruhileko berean baino. Enplegu sorkuntza horren zati handi bat zerbitzu jardueretan kontzentratu zen, baina industrian eta eraikuntzan ere handitu egin zen enplegu garbien kopurua.

Pixkanaka, prezioen igoerak Europako Banku Zentralaren (EBZ) helburura hurbiltzen ari dira, %2,0an baitago. Horrela, EAEn, BPGaren deflatoarea %2,5era jaitsi zen hirugarren hiruhilekoan, eta KPIak %2,9ko aldakuntza tasa izan zuen azaroan; azpiko inflazioa, berriz, produktu energetikoak eta elikagai freskoak alde batera uzten baititu, %2,8koa izan zen. Moteltzeko joera orokorra da Europan, eta interes tasak jaitea ahalbidetu du.

Eskuragarri dagoen koiunturazko informazioarekin eta inguruneari buruzko hipotesi berriekin, Ekonomia Zuzendaritzak 2024rako eta 2025erako aurreikuspenak eguneratu ditu. Urte honetarako aurreikuspenak ez dira aldatu (%1,9), baina hamarren bat apaldu dira datorren urteari begira. Neurri handi batean, 2025erako hazkunde txikiago hori inguruko ekonomien ahuleziak justifikatzen du, aurreikuspenak beherantz berrikusi baitira. Enpleguari dagokionez, aurreikuspen berrien arabera, %1,7 haziko da 2024an eta %1,4, berriz, 2025ean.


## EKONOMIAREN INGURUNEA

Azken hilabeteetan, munduko ekonomiak hedapen erritmo sendoari eutsi dio, bigarren hiruhilekoaren antzeko tasa jasoz. Hori gertatu da inflazioak moteltzen jarraitu duen testuinguru batean, eta ekonomia aurreratu nagusietako lan merkatuen tentsioan erlaxazio seinaleak ikusten hasi dira.


Hala ere, joera orokor horien azpian desberdintasun garrantzitsu batzuk daude. Lehenik eta behin, ekonomia globalaren indarra zerbitzuen sendotasunean oinarritzen da; manufakturrek, berriz, 2023ko amaieran eta 2024ko hasieran susperraldi mailakatuaren zantzuak erakusten zituzten, eta ahultasuneko sintoma argiak erakusten dituzte berriro. Bigarrenik, alde nabarmenak daude jarduera ekonomikoaren dinamismo mailan munduko hainbat ekonomia nagusiren artean. Zehatzago esanda, alde batean AEBen indarra eta erresilientzia kokatzen dira eta bestean euroaren eremuko ahultasuna, nabarmen hobetu den arren, Alemania, Frantzia eta Italiako egoera delikatuak. Orobat, ekonomia txinatarraren bultzada falta azpimarratu behar da, herrialde horretan pizgarri ekonomiko esanguratsurik ez dagoelako.

### Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina



Iturria: ELGA.

Txinan, familien konfiantzaren jaitsierak txikizkako salmenten beherakada areagotu zuen, bereziki automobilgintzaren sektorean, eta horrek kontsumo pribatuaren beste moteltze bat ekarri zuen berekin. Toki mailan ezarritako finantza murrizketa handiagoek ere eragin negatiboa izan zuten inbertsioan; higiezin merkatuak, berriz, oztopo handia izaten jarraitu zuen jarduera

ekonomiko orokorrerako. Horren guztiaren ondorioz, Txinako BPG %4,7 handitu zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, 2023ko lehen hiruhilekotik jaso duen urte arteko tasarik txikiena baita. Txinako gobernuak, bere barne eskariaren ahultasunaz jabetuta, pizgarri fiskalen beste pakete bat jarri du martxan. Datozen hiruhilekoetara arte itxaron beharko da pakete horren eraginkortasuna baloratzeko.

India, bestalde, %5,8 hazi zen, aurreko hiruhilekoko %6,6aren azpitik eta merkatuko aurreikuspenak (%6,5) baino askoz gutxiago. Tasa hori ez zen soilik 2022ko lehen hiruhilekotik izandako hazkunde erritmo baxuena izan, baizik eta bere hazkunde erritmoaren ahultzea ere berretsi zuen, herrialde handien artean, eta aldi luze batean, munduko hazkunderik handieneko ekonomia izan ondoren. Zehatzago adierazita, kontsumo pribatuak eta inbertsioak tonua galdu zuten, eta, ondorioz, inportazioak murriztu egin ziren; esportazioek, berriz, jarduera ekonomikoaren beste zutabe nagusiak, hazkunde maila murriztu zuten. Mexiko, aldiz, %1,6 hazi zen, zazpi hiruhilekotan jarraian izandako apaltzeko joera apurtuz. Kasu horretan, uste baino kontsumoaren eta inbertsioaren erresilientzia handiagoak azaltzen du hobekuntza hori, neurri batean, lehen seiuhilekoko gastu publikoaren hazkunderen eragin atzeratuen ondorioa izan daitekeena.


Herrialde aurreratuei dagokienez, ELGaren jarduera ekonomikoa %1,7 handitu zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, eta aurreko hiruhilekoaren aldean igoera txiki bat izan zuen; horrela, bere gurutzaldi abiadurari heldu zion berriro. AEBetan, jarduera ekonomikoa moteldu egin zen arren, hazten jarraitu zuen eta %2,7ko erritmo sendoa eskuratu zuten. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta hiru hamarren moteldu bazen ere, osagaien araberako analisiak hazkunde osasungarriaren profila erakusten du, BPGaren agregatu guztiak goraka ari direlako. Kontsumo pribatua jarduera ekonomiko guztiaren %69 da, eta ekonomiaren eragile nagusia izaten jarraitu zuen, zikloaren fase aurreratu honetan ere lan merkatu dinamiko batek bultzatuta. Izan ere, irailean, langabezia tasa %4,1era jaitsi zen, hilabete bakar batean 254.000 enplegu garbi sortu zirelako.

Ondoz ondoko bi hiruhilekoko uzkurduren ondoren, eta jarduera ekonomikoari eragin zioten erronka meteorologikoen mehatxupean, hala nola Shanshan tifoia eta lurrikara handiko alerta bat, Japoniak suspertzeko bidean aurrera egitea lortu zuen. Zehazki, gobernuaren politikek azpiegituretan inbertitzea sustatu zuten eta sektore pribatukoak bultzatu zituzten; aldiz, ingurune global egonkorrago batek esportazioei mesede egin zien eta inbentarioak handitu zituen. Horri guztiari esker, Japoniako BPG %0,5 hazi zen urte batetik bestera, eta hobekuntza nabarmena izan zuen aurreko bi hiruhilekoetan izandako -%0,9ko jaitsierarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, oraindik ere erronkak daude, hala nola barne kontsumoa indartzeko eta biztanleriaren zahartzeari aurre egiteko beharra, epe luzerako hazkunde iraunkorrerako oztopo garrantzitsuak izaten jarraitzen baitute.



Eurogunean, urte hasieran hazkunde motela eta neurritsua izan ondoren, bere ekonomiak suspertzeko zantzuak erakutsi zituen hirugarren hiruhilekoan. Euroguneako herrialdeen BPGk %0,9ko hazkundera izan zuen uztailetik irailera bitartean, eta 2023aren amaieran, ia hazkunderik lortu ez zuenean, hasitako goranzko bidea sendotu egin zen. Gehikuntza hori familien unitateen kontsumoaren hazkundera (%1,0) eta gastu publikoaren igoera (%2,4) oinarritu zen, inbertsioaren jaitsiera berri bati aurre egin baitzioten, bederatzi hilabetez tasa negatiboetan metatu ondoren. Europar Batasun osoan dinamika bizitasun gehixeagoz errepikatu zen. Hala, BPG %1,0 hazi zen hirugarren hiruhilekoan, urteko bigarren laurdenean %0,8 handitu ondoren.

### Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat eta BEA.

Hala eta guztiz ere, Espainiak izan ezik (BPGaren urte arteko aldakuntza tasa %3,3 nabarmena izan zuen), hondoko irudia ia erabateko geldialdia izan zen Europako ekonomia handien artean. Izan ere, Espainiako ekonomiak ezohiko indarra erakutsi zuen berriro, Europako kideen ahultasun testuingurua gorabehera. Kontsumo pribatua %3,0 hazi zen eta publikoa, berriz, %5,1. Esportazioak %4,3 areagotu ziren, neurri handi batean enpresa zerbitzuen %12,5eko tiraldiari esker, eta inbertsioa, Europako funtsak iritsi ziren arren eta enpresen kontuen egoera onbideratua gorabehera, atzeratuta geratu zen, %1,6ko gorakadarekin, BPGaren %3,4ko hazkunderarekin alderatuta.

Europako gainerako ekonomia nagusietan bilakaera ez zen hain ona izan. Alemaniak berriro egin zuen behera, oraingoan %0,3. Beraz, bost hiruhilekoz jarraian uzkurdurak metatu ditu herrialde horrek. Alemaniako ekonomia atzeraldian sartu zen 2023an, eta, itxura guztien arabera, 2024an ez du hazkunde positibo berriro ekitea lortuko. Horren arrazoia da beren eredu ekonomikoa

kalitate handiko ondasunak ekoizteko gaitasunagatik bereizten diren enpresak bultzatzen dituzten politiketan oinarritzen dela, bereziki automobilgintzaren alorrekoak, energia hornidura merkea izan dutenak eta esportaziora oso bideratuta daudenak, baina eredu hori mehatxatzen ari diren hainbat faktore agertu dira. Besteak beste, munduko merkataritzaren dezelerazioa, muga zergen gerrak, energia ereduaren aldaketa eta merkatu globalean lehiakide berriak sartzea, bereziki automobilgintzaren sektorean. Horrek guztiak eragin kaltegarria izan du kontsumoan, eta atzera egin du berriro, baina baita inbertsioan ere, bi urte baitaramatza beherakada askean.

Frantzia, BPGa pixka bat bizkortu zen bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta hiru hamarren gehiago hazi zen, %1,2ra iritsi arte. Hobekuntza hau Parisko Joko Olinpikoen efektuak bultzatu zuen. Turismoaren eraginak eta lehiaketarekin lotutako sarreren eta emisio eskubideen salmentak barne eskariaren gorakada eta, ondorioz, BPGaren hazkundea sustatu zuten. Hala ere, eragin hori aurtengo azken hiruhilekoan desagertuko da. Horri Alemaniaren ahultasuna gehitu behar zaio, Frantziako bazkide komertzial nagusia baita, eta, beraz, Frantziako ekonomiaren beste moteltze bat aurreikusten da urtearen amaierarako.

Italiak, bigarren hiruhilekoan jarduera ekonomikoak hobekuntza txiki bat izan ondoren, BPGaren balizko gorakada iradokiz, aurtengo hirugarren hiruhilekoan ekonomia berriro ahuldu zen. BPGaren urte arteko hazkundea %0,4 izanik, ekonomiaren sendotasuna kolokan dago. Inbertsioak eta esportazioek behera egin zuten, eta kontsumo pribatuak hazkunde positibo berritua lortu bazuen ere (%0,4), joera apatikoa erakusten jarraitu zuen.

Lan merkatuari dagokionez, euroguneko langabezia minimo historikoan mantendu zen urrian (%6,3), aldaketarik gabe irailarekin alderatuta, Europar Batasun osoan bezala, non langabezia tasa %5,9koa izan baitzen. Guztira, Europar Batasunak 12,9 milioi langabe zituen urrian, eta horietatik 10,8 milioi euroaren eremukoak ziren, Eurostaten kalkuluen arabera. Espainiak izan zuen berriz ere eremu osoko langabezia tasarik altuena, %11,2koa, aldaketarik gabe 2024ko irailarekin alderatuta, eta zazpi hamarren gutxiago 2023ko urrian baino. Inflazioaren bilakaerari dagokionez, irailean euroguneko KPI indizea %2,0tik behera jaitsi zen, lehen aldiz hiru urte luzeko epean, eta %1,7an kokatu zen. Hala ere, urrian, KPIa %2,0ra igo zen berriro, zerbitzuen, energiaren eta elikagai freskoen prezioek gora egin zuelako.

Aurtengo azken hiruhilekoari begira, orain arte eskuragarri dauden adierazle ekonomikoek urte osoan erregistratutako joeren jarraipena erakusten dute. Hau da, AEBen erresilientzia, ahulezia eurogunean eta bultzada falta Txinan.

## EAE-KO EKONOMIA

### Ekoizpena eta enplegua

2024ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomia %1,8 hazi zen urte arteko tasan eta %0,5, berriz, hiruhileko artekoan. Bi zifra horiek bat datoz Ekonomia Zuzendaritzak urrian egindako aurreikuspenarekin, aurreko buletin ekonomikoan argitaratu zena. Datuak bat etortzeaz gain, garrantzitsuena da orduan aurkeztutako egoera makroekonomikoa, 2025erako aurrekontuen proiektuan sartu zena, betetzen ari dela, eta horrek duela hilabete batzuk egiten zen hausnarketa indartu egiten duela. Hiruhilekoko bilakaerak erakusten duenez, EAEko ekonomiak 2022a hasi zenetik bizi izan duen moteltzeko prozesua gelditu du. Data horretan hazkunde erritmoa %6,8ra igo zen, pandemia kontrolatzeko ezarritako murrizketen amaierak lagunduta. Izan ere, hirugarren hiruhilekoko urte arteko tasa bigarrenaren parekoa izan da, eta hazkunde erritmoaren egonkortasuna erakusten du. Hazkunde datua garrantzitsua da, halaber, inguruko herrialde nagusiek erregistratutako emaitzekin alderatuz gero; izan ere, herrialde horiek aldakuntza tasak nabarmen txikiagoak jaso zituzten, baina susperraldi txiki bat izan zela esan daiteke. Zehazki, euroaren eremua %0,9 hazi zen hiruhilekoan, eta Europar Batasuna %1,0; Alemaniak lau jaitsiera metatu zituen jarraian.

### ESKAINTZAREN ALDAGAIK

#### Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023		2024		
			III	IV	I	II	III
<b>BPG erreala</b>	<b>5,7</b>	<b>2,7</b>	<b>2,5</b>	<b>2,3</b>	<b>2,2</b>	<b>1,8</b>	<b>1,8</b>
Nekazaritza eta arrantza	2,2	16,0	14,4	10,3	6,5	2,8	-1,3
Industria eta energia	3,9	1,8	1,7	2,0	1,5	0,5	0,7
- Manufakturen industria	4,5	0,2	-0,2	0,4	0,8	0,4	0,5
Eraikuntza	5,8	2,6	2,3	1,8	1,7	1,1	1,5
Zerbitzuak	6,7	3,0	2,7	2,3	2,5	2,3	2,2
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	12,6	1,1	0,3	0,1	0,8	1,1	1,5
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	3,0	0,9	0,5	1,5	2,9	2,8	2,6
- Gainontzeko zerbitzuak	5,0	5,4	5,6	4,2	3,4	2,7	2,4
Balio erantsi gordina	5,9	2,8	2,6	2,3	2,2	1,8	1,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,4	1,7	2,0	2,2	2,2	2,1	1,8

Iturria: Eustat.

Europako herrialdeen ahultasun horrek bereziki eragiten dio industriari, hori baita kanpoaldearekin merkataritza harreman handiena duen produkzio sektorea. Hirugarren hiruhilekoan, industriaren balio erantsia hamarren pare bat hobetu eta %0,7an kokatu zen, oraindik ere ekonomiaren batez besteko hazkundetik (%1,8) oso urrun. Manufakturen kasuan, egoera are okerragoa izan zen, urte arteko hazkundera %0,5era mugatu baitzen, bigarren hiruhilekoan lortutako balioa baino hamarren bakar bat gorago. Esan behar da eurogunean industria, oro har, eta manufakturak, bereziki, balio erantsia murrizten ari direla, eta, beraz, EAEko industriaren egoera ingurukoena baino apur bat hobe dela.

## JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023		2024		
			III	IV	I	II	III
<b>Industria</b>							
Industria produkzioaren indizea	5,7	0,1	-0,7	1,1	0,1	-0,8	0,2
Negozio zifren indizea	26,4	-0,4	-1,2	-5,5	-9,5	-2,1	-6,7
Industria giroaren indizea (maila)	1,1	-14,9	-15,3	-16,0	-15,1	-2,9	-2,5
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,2	1,2	1,0	1,2	1,2	1,1	0,7
<b>Eraikuntza</b>							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	14,0	8,7	9,8	6,8	5,9	-3,4	-1,5
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	-13,7	-17,4	-14,3	-9,7	12,0	-29,0	-0,8
Etxebizitzen salerosketak	9,1	-13,9	-15,7	-17,7	-11,9	-0,9	30,8
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,7	0,8	0,7	0,4	0,1	-0,3	0,2
<b>Zerbitzuak</b>							
Merkataritza salmenten indizea	8,7	-0,4	-1,7	-1,0	-1,8	0,0	0,7
Merkatuko beste zerbitzu batzuen	16,6	4,6	2,3	0,2	2,2	1,3	0,2
Negozio zifren indizea	15,2	2,9	1,2	-1,0	-3,3	1,6	1,1
Hegazkinen bidezko bidaiariak	100,7	24,0	17,1	17,8	13,9	7,4	0,5
Hoteletan igarotako gaualdiak	54,2	12,0	7,9	7,4	9,2	2,8	1,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,4	1,8	2,1	2,2	2,2	2,0	1,5

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Koiunturazko informazio berrienak zalantzak sortzen ditu EAEko industriaren susperraldiaren sendotasunari buruz. Izan ere, urriko industria ekoizpenak %3,3ko beherakada islatu zuen aurreko urteko hil beraren aldean, eta tasa hori ez da handiegia, baina pandemiaz geroztik estatistika horrek ezagutu duen handiena da. Ondasunen helburu ekonomikoaren araberako

banakapenak iradokitzen du produkzioaren beherakada orokorra dela eta talde guztiei eragiten diela. Nabarmenezkoa da kontsumoko ondasunen produkzioaren beherakada, urte arteko %8,4 hondoratu baita, eta kontsumo iraunkorreko ondasunen beherakada bereziki handia izan da (%18,6), zazpi hilabetez jarraian jaitsiera garrantzitsuak bilduz. Energiaren ekoizpenak ere oso emaitza negatiboa izan zuen (-%4,9), eta zazpi jaitsiera izan ditu azken zortzi hilabeteetan. Ekipamendurako ondasunek ere, ordura arte zifra positiboekin mantentzen zirenak, indarra galdu dute (-%1,7).

Industriaren sektoreak emandako iritzietan ere hautematen dira ekoizpenak erakusten dituen zalantzak. Zehatz-mehatz adierazita, hirugarren hiruhilekoko industria giroaren indizeak aurreko hiruhilekoan ezagututako baikortasuna indartzen zuen, baina urriko eta azaroko emaitzek baikortasun hori hoztu dute, baina ez dira maila kezagarrietara iristen. Izan ere, hirugarren hiruhilekoan -2,5eko balioa izatetik, ezagutzen diren bi hilabeteetako batez bestekoan -14,5ekoa izatera igaro da, hau da, 2023ko batez bestekoa, urte horretan industriaren balio erantsia eta bere enplegua hazi egin baitziren. Azken bi hilabeteetako okertze hori batez ere produkzioaren joeran nabari da, eta eskaera zorroari buruzko iritzia aurreko erantzunekin bat datoz. Lan merkatuari dagokionez ere ikuspegi negatiboagoa dago.

Eraikuntzak amaitutzat eman zuen moteltzeko prozesua, eta hirugarren hiruhilekoan %1,5 hazi zen urte arteko tasan, hots, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago. Sektoreak kostu handiei aurre egiten jarraitzen du, bereziki eskulanari dagokionez, %5,4ko erritmoan garestitzen baita, Eustaten datuen arabera, bizitzaren kostuaren oso gaintetik. Hala ere, lehengaien kostua motelduz joan da, %1,0 ingurura arte, azken hiru urteetan baino nabarmen gutxiago. Hala ere, lehengaiak %30 garestitu dira azken zazpi hilabeteetan. Jarduerari dagokionez, eraikinen atalean dinamismoaren galera nabarmena hauteman da, ingeniari-taldea zibilari lotutako jardueraren hedapen tonuarekin konpentsatzen dena.


Zerbitzuak dira, berriz ere, EAEko ekonomiaren hazkundearen motorra, balio erantsiaren %2,2ko hazkundearekin urte arteko terminoetan; tasa hori aurreko aldietaoaren antzekoa da, eta hazkunde erritmoa egonkorra dela iradokitzen du. Aurreko hiruhilekoan bezala, sektorea osatzen duten jarduera taldeen arteko konbergentzia txikia hauteman da; horrela, atzeratuenean beren bilakaera bizkortzen dute eta dinamikoek beren bultzada apur bat geldiarazten dute. Zehazkiago, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak geratzeko zantzuak eman zituen 2023ko bigarren erdian, baina une horretatik bere aldakuntza tasak gora egin du, hirugarren hiruhilekoan %1,5 izateraino. Aitzitik, sektore publikoarekin lotura handiena duten jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) aurtengo lehen hiruhilekoan izan zuten tasarik gorena (%2,9), eta hirugarren hiruhilekoan apaltze txiki bat izan zuten (%2,6). Azkenik, gainerako zerbitzuek moteldu egin zuten bultzada, %2,4raino.

Zerbitzuen sektorearen koiunturako datu berriek erakusten dutenez, sektorearen martxa ona laugarren hiruhilekora ere zabaltzen ari da. Alde batetik, txikizkako merkataritzaren salmentak indar handiz hazi ziren urrian, eta merkataritzaren suspertzeak bere horretan jarraitzen duela iradokitzen dute, inflazioa moteldu ondoren. Halaber, jarduera horretan enpleguak erritmoa irabazten du. Bestetik, turismoari gehien lotutako jarduerak urtean zehar bizitako moteltzea geldiarazi dute, eta hazkunde garrantzitsuaren irudia eskaintzen dute orain. Hala, hotel establezimenduetako gaualdiak %1,7 gehitu ziren urrian (hirugarren hiruhilekoan %1,1 hazi ziren), eta EAEko aireportuetako bidaiarien trafikoa %1,1, hirugarren hiruhilekoko %0,5aren gainetik. Kopuru apalak dira, baina turismoak pisua hartzen jarraitzen duela adierazten dute.


Ekonomiaren martxa onak isla du lan merkatuan, eta horrek enplegu garbia sortzen jarraitzen du, erritmo nabarmenean. Hirugarren hiruhilekoan, enpleguak, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, urte arteko %1,6 egin zuen gora, eta hiruhileko osoko kopurua ia 989.000 lanpostutan kokatu zuen, serie historikoaren errekorretik oso gertu, zeina 2008ko bigarren hiruhilekoan lortu baitzen, urte horretan mundua astindu zuen finantza krisiaren aurretik hain zuzen ere. Aipatutako hazkunde tasa horren ondorioz, 15.800 lanpostu garbi sortu dira azken urtean. Guztirakotik, 14.300 enplegu baino gehixeago zerbitzu jardueretan kontzentratu ziren, eta urte arteko %2,0ko aldakuntza tasa izan zuten, aurreko hiruhilekoetan baino zertxobait txikiagoa. Baina industriak ere parte hartu zuen enpleguaren hobekuntza horretan, nahiz eta bere balio erantsia erritmo apalean hazi zen. Zehazki, industriako enplegua %0,8 areagotu zen, eta 1.600 lanpostu garbi ekarri zituen guztira. Bestalde, eraikuntzak hamarnaka enplegu berri baino ez zituen sortu.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzak.

Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) eratorritako sexuaren arabeko enpleguaren analisiak adierazten du 2024ko hirugarren hiruhilekoan 508.000 gizon eta 461.400 emakume zeudela lanean, %2,5eko eta %1,4ko urte arteko aldakuntza tasekin, hurrenez hurren. Inkestaten arabera, halaber, asteko batez besteko lanaldia 2023ko aldi berekoa baino zertxobait txikiagoa izan zen aurten. Aurreko datuen osagarri, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren okupazio tasa %71,1eraino igo zen, gizonen %74,7rekin eta emakumeen %67,6rekin; beraz, bien arteko aldea 7,1 punturaino handitu da.

Jadanik igaro diren laugarren hiruhilekoko hilabeteetan lan merkatuari buruz argitaratu den informazioak pentsarazten du enplegua sortzeko erritmoa hirugarren hiruhilekoaren antzekoa dela. Hala, urrian eta azaroan Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,2 hazi zen batez beste, hirugarren hiruhilekoko tasa bera. Kasu horretan, intentsitate handiagoa hautematen da emakumeen enpleguan (%1,3) gizonenean baino (%1,1), zerbitzuek bizi duten une onari esker, sektore ekonomiko horrek biltzen baititu emakume gehienak. Jarduera adarren arabera, hezkuntzako afiliazioaren normalizazioa aipatu behar da, joan den ikasturtearen amaieran izandako jaitsiera handiaren ondoren. Une honetan, 85.000 afiliazio baino gehiago daude berriro adar horretan, maiatzera arte egon zen bezala. Osasungintzan ere igoera handia dago (%2,0), duela urtebete baino 2.200 afiliazio gehiagorekin. Afiliazioa asko handitu duten beste jarduera batzuk ostalaritza, jarduera profesionalak, garraioak eta informazioa eta komunikazioak dira.

Lan bila ari diren pertsona berrien kopuruak gora egiten jarraitzen du, eta biztanleria aktiboa ia 15.000 pertsonatan hazi da azken urtean; horietatik 5.000 baino gehiago emakumeak izan dira, BJAREN arabera. Horrek esan nahi du urte arteko hazkundera %1,4koa izan dela, oso garrantzitsua, baina ez da iritsi enpleguaren hazkunderaren hazkundera. Ondorioz, langabezian dauden pertsonen kopurua jaitsi egin da 2023ko hirugarren hiruhilekorako zenbatetsitako kopuruekin alderatuta, 4.500 pertsona ingurutan; 3.300 gizon eta 1.200 emakume gutxiago daude langabezian. Bilakaera horien ondorioz, langabezia tasa %7,1era jaitsi zen hirugarren hiruhilekoan, duela urtebetekoa baino sei hamarren beherago. Gizonen langabezia tasa %6,8 da orain (%7,5 izan zen 2023ko hirugarren hiruhilekoan), eta emakumeena, berriz, %7,6 (%7,9 duela urtebete). Beraz, bi sexuen arteko langabezia tasaren diferentziala zertxobait handitu da, zortzi hamarren eraino.

BPGaren (%1,8) eta enpleguaren (%1,6) bilakaerak produktibitate irabazi positiboa utzi du, baina txikia, bi hamarren ingurukoa. Deigarria da industriaren portaera, irabazi gehien lortu ohi dituen sektorea baita; izan ere, enplegua pixka bat gehiago handitu zen (%0,8) balio erantsia baino (%0,7), eta horrek lehiakortasun galera txiki bat iradokitzen du. Aitzitik, eraikuntzak balio erantsia handitu zuen (%1,5) ia pertsona gehiago kontratatu gabe (%0,2), eta, beraz, produktibitate irabazi esanguratsua lortu zuen (%1,3). Zerbitzuek balio erantsia eta enplegua antzeko erritmoan handitu zituzten.

## Barne eta kanpo eskaria

EAEko ekonomiaren hazkundera barne eskariaren sendotasunean oinarritzen da, eta kanpo saldoak neutraltasunetik hurbil jarraitzen du. Hala, 2024ko hirugarren hiruhilekoan, barne eskaria %2,0 handitu zen urte batetik bestera, eta tasa horren antzeko ekarpena egin zion BPGaren hazkunderari. Kanpo saldoak, berriz, bi hamarren inguru kendu zizkion hazkunderari, inportazio errealak esportazio errealak baino gehiago hazi zirelako (%2,3 eta %2,0, hurrenez hurren).

### ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023		2024		
			III	IV	I	II	III
<b>BPG errealak</b>	<b>5,7</b>	<b>2,7</b>	<b>2,5</b>	<b>2,3</b>	<b>2,2</b>	<b>1,8</b>	<b>1,8</b>
Gastua azken kontsumoan	6,7	1,7	1,4	1,8	2,0	1,9	1,9
- Familien gastua kontsumoan	7,8	1,9	1,5	1,8	2,0	1,9	1,8
- Adminis. gastua kontsumoan	3,1	1,3	1,1	1,5	2,2	2,1	2,2
Kapital eraketa gordina	8,7	1,8	1,7	2,0	2,1	1,6	2,0
- Ekipamendu ondasunak	14,4	3,1	2,6	3,1	2,2	1,7	2,3
- Gainontzeko inbertsioa	5,3	1,0	1,1	1,3	2,0	1,5	1,9
Barne eskaria	7,2	1,8	1,5	1,8	2,1	1,8	2,0
Esportazioak	13,7	1,0	0,3	-1,6	-3,4	2,1	2,0
Inportazioak	15,9	-0,2	-0,9	-2,1	-3,6	2,1	2,3

Iturria: Eustat.

Barne eskariaren bilakaeran nabarmendu beharreko ezaugarrietako bat bi osagai nagusien erritmo berdintasuna da; izan ere, bi osagai horiek antzera hazi ziren eta oreka irudia ematen diote agregatuari, bietako baten mende ez dagoelako. Bi kasuetan, hazkunde erritmoan egonkortasuna hautematen da, aurreko hiruhilekoekin alderatuta beheranzko edo goranzko joerarik gabe. Gainera, azken kontsumoan eta kapital eraketa gordinean erregistratutako tasak 2023 osoan erregistratutakoak baino zertxobait altuagoak dira.

Azken kontsumoko gastua %1,9 hazi zen hirugarren hiruhilekoan, aurreko aldiko tasa bera eta aurrekoen oso antzeko balioa. Hazkunde erritmoaren egonkortasun hori kontsumo pribatu eta



publikoari esker lortzen da, bilakaeran egonkor mantentzen baitira. Zehazki, familien kontsumoak %1,8 egin zuen gora, ekonomia osoak izandako erritmoaren ildotik. Beraz, badirudi prezioen igoera handiak ekarri zuen gastuaren uzkurdura atzean geratzen ari dela inflazioa kontrolatu ahala. Bestalde, administrazio publikoen kontsumoa %2,2 igo zen, urtearen lehen erdian erregistratutakoaren ia berdina.

## KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023		2024		
			III	IV	I	II	III
<b>Kontsumoa</b>							
Azalera eta kate handietako salmentak	-1,3	0,5	1,5	0,3	-0,4	-1,1	1,8
Txikizkako merkataritza indizea	4,5	3,1	3,1	0,4	1,5	1,0	4,2
Kontsumo ondasunen ekoizpena	4,5	0,2	-1,8	-2,1	0,8	-4,7	-1,3
Kontsumo ondasunen inportazioa	17,6	1,0	1,5	-4,9	-16,2	-6,3	1,6
Turismoen matrikulazioa	-8,8	5,9	-6,7	11,1	2,7	0,5	15,1
<b>Inbertsioa</b>							
Ekipo ondasunen ekoizpena	9,4	4,1	4,4	7,2	3,1	3,0	3,6
Ekipo ondasunen inportazioa	21,3	10,5	2,2	6,6	-12,1	2,3	4,2
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-13,5	15,5	18,0	16,7	14,5	3,8	7,1
Etxebizitza berriak eraikitze oniritziak	-13,7	-17,4	-14,3	-9,7	12,0	-29,0	-0,8
Lizitazio ofiziala	54,2	-26,1	-19,1	-65,2	19,4	28,1	-16,4

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kapital eraketa gordinari dagokionez, hirugarren hiruhilekoan %2,0ko hazkundera izan zen, eta horrek atzean utzi zituen aurreko hiruhilekoan sortu ziren zalantzak, tasa puntu erdi jaitسي baitzen, %1,6raino. Beraz, magnitude horrek urtearen hasierako erritmoa berreskuratu du. Inbertsioaren bi osagaiak erritmoa bizkortu zuten, baina nabarmentzekoa da ekipamendu ondasunetan egindako inbertsioak erakusten duen une ona, urte arteko tasa %2,3raino igo baitu, ziurgabetasunak, tentsio geopolitikoek, finantzaketa kostu altuek eta eremu ekonomikoen arteko zatiketak enpresen erabakiak baldintzatzen dituzten une honetan. Gainerako inbertsioa, eraikuntzan egiten dena barne, lau hamarrenetan hobetu zen, %1,9an kokatu arte. Laugarren hiruhilekoari buruzko informazioa oso txikia da oraindik, baina inbertsioaren susperraldia urtearen amaierara ere heda daitekeela adierazi du. Horrela, urriko

lizitazio ofizialaren zifrak, eraikuntzaren adierazle aurreratu bat dena, indartsu hazi ziren eta iraileko ekipamendurako ondasunen inportazioak oso positiboak izan ziren.

Kanpoko eskariaren ikuspegitik, bai esportazioek bai inportazioek, termino errealetan eta termino nominaletan, aldakuntza tasa positiboak izan zituzten hirugarren hiru hilekoan, bigarren hiru hileko jarraian. Horrek pentsarazten du 2023. urtearen amaieran eta 2024. urtearen hasieran ikusitako zailtasunak pixkanaka atzean geratzen ari direla. Bilakaera hori nazioarteko merkataritzak izandakoaren antzekoa da; izan ere, urte honetako erdialdeko hilabeteetan aldakuntza tasa positiboak hasi ziren jasotzen. Unean uneko prezioetan, EAEk kanpora (gainerako erkidegoetara eta atzerrira) bidalitako ondasun eta zerbitzuen esportazioak 17.737 milioi eurokoak izan ziren, eta inportazioak, berriz, 17.497 milioi eurokoak. Merkataritza saldoa positiboa izan zen, baina txikia.

Kopuru horien ia erdia atzerrira bideratu diren ondasun salmentak dira (zerbitzurik gabekoak). Guztira, hirugarren hiru hilekoan 7.256 milioi euroko balioa zuten ondasunak esportatu ziren atzerrira, 2023ko aldi berean baino %0,7 gehiago. Igoera oso txikia da, baina bigarren hiru hilekoko datua (%2,0) finkatzeko eta urtearen hasieran salmentek izandako jaitziera handitik (-%15,9) aldentzeko balio izan du. Bestalde, atzerritik ekarritako ondasunen inportazioek 6.574 milioi euroko balioa izan zuten, aurreko urteko aldi berean egindako erosketek baino %2,6 gehiago.

Joera ezberdina hautematen da produktu energetikoen esportazioetan eta gainerako produktuen salmentetan. Izan ere, lehenengoek %23,8ko urte arteko hazkundea eskuratu zuten, bigarren hiru hilekoan salmentak bikoiztu ondoren. Guztira 493 milioi euro saldu ziren, hau da, atzerrira egindako ondasunen esportazio guztien %6,8. Bestalde, produktu ez-energetikoen salmenta %0,7 murriztu zen, eta sei hiru hilekotan jarraian murriztu da jadanik. Energiatz bestelako produktuen salmenta, guztira, 6.764 milioi eurokoa izan zen.

Energiatz bestelako produktuen esportazioak beherakada txiki bat izan zuen arren, neurri handi batean automobilgintzari lotutako produktuen salmentek eragin zuten beherakada hori. Hori horrela izanda, garraio materialaren esportazioak (esportatutako guztiaren %26) salmenten balioa %8,9 murriztu zuen; plastikoaren eta kautxuaren esportazioak, berriz, %24,9. Horiei nekazaritzako produktuak gehitu behar zaizkie, %17,3 jaitzi baitziren. Alde positiboan, makineria eta aparatuak nabarmentzen dira, esportazioen egituran pisu handiena duen taldeetako bat, %14,2ko hazkundea lortu baitzuten. Metal arruntek eta beren manufaktura ere salmenten igoera aipagarria izan zuten (%6,7), zenbait hiru hilekotan datu negatiboak bata bestearen atzetik jaso ondoren.

## ESPORTAZIOAK PRODUKTUEN ARABERA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2022	2023	2023		2024		
			IV	I	II	III	III
<b>GUZTIRA</b>	<b>26,8</b>	<b>0,3</b>	<b>0,6</b>	<b>-15,9</b>	<b>2,0</b>	<b>0,7</b>	<b>7.256.419</b>
Erregai mineralak	108,8	-31,2	7,3	0,3	112,6	23,8	492.593
Ez-energetikoak	22,2	3,4	-0,1	-16,9	-2,0	-0,7	6.763.826
Nekazaritzakoak	35,1	2,9	-17,6	-41,1	-15,5	-17,3	344.920
Kimikoak	29,4	-11,6	-18,6	-10,9	1,9	-2,1	202.376
Plastikoak eta kautxua	17,1	6,7	3,4	-19,1	-17,8	-24,9	402.185
Papera	31,9	-17,3	-26,0	-14,2	7,8	26,5	214.723
Metal arruntak	27,3	-12,7	-18,2	-20,1	-3,6	6,7	1.583.754
Makinak eta aparatuak	13,0	8,7	7,2	-1,5	18,1	14,2	1.606.849
Garraio materiala	18,5	19,1	19,9	-17,8	-8,1	-8,9	1.868.275
Gainerakoak	31,2	3,6	-0,5	-16,4	-2,4	0,4	540.741

Iturria: Eustat.

Esportazioen helbide geografikoaren arabera, ELGAko partaideak diren herrialde garatuen multzorako salmentak pixka bat murriztu ziren (-%0,6), eta gorabidean dauden eta garatzeko bidean dauden herrialdeetara egindakoak, ordea, %7,6 hazi ziren. Aipatu behar da Euskadik lotura handia duela herrialde garatuekin, herrialde horiek biltzen baitituzte atzerriko ondasunen esportazio guztien %80 baino gehiago. Izan ere, eremuka, 6.064 milioi euro bidali ziren herrialde garatuetara, eta 1.193 milioi euro garapen bidean dauden herrialdeetara.

Herrialde garatuen artean, euroaren eremua nabarmentzen da duen garrantziagatik, atzerrira egindako EAEko esportazio guztien erdia baino zertxobait gehiago jasotzen baitu. Zehazki, hirugarren hiruhilekoan guztizkoaren %53,5 bildu zuen, eta ez da nabaritzen pisua handitzeko edo murrizteko joera argirik, beste merkatu batzuen mesedetan. Aldi horretan, eremurako esportazioak %1,0 handitu ziren eta 3.883 milioi eurora iritsi ziren. Bi produktu taldek biltzen dituzte eremura egindako esportazio gehienak. Alde batetik, garraio materiala, ia 1.000 milioi euroko salmentekin eta %13,9ko urte arteko jaitsierarekin, aurreko bi aldietako antzeko jaitsierekin batera. Zorionez, beheakada hori metal arruntek eta beren manufakturrek konpentsatu zuten, pisurik handieneko beste taldea, salmentak %11,1 handitu baitzituen, eta 1.000 milioi eurora ere hurbildu zen. Garrantzian hirugarren taldea makinariarena da, urte arteko %9,1eko hazkundera izan baitzuen. Erregai mineralen salmentak ere hazkunde handia izan zuen hirugarren hiruhilekoan (%44,6).

## ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2022	2023	2023		2024		
			IV	I	II	III	III
<b>GUZTIRA</b>	<b>26,8</b>	<b>0,3</b>	<b>0,6</b>	<b>-15,9</b>	<b>2,0</b>	<b>0,7</b>	<b>7.256.419</b>
ELGA	27,1	1,4	1,3	-16,2	1,6	-0,6	6.063.572
Eurogunea	27,3	-3,4	-3,1	-15,2	-1,5	1,0	3.883.068
Alemania	22,2	2,9	-4,3	-20,2	-15,2	-14,2	1.010.900
Frantzia	20,3	-1,7	-0,1	-3,1	5,8	7,3	1.144.193
Italia	29,8	4,4	4,7	-8,8	19,3	-8,1	371.747
Erresuma Batua	17,0	3,0	3,9	-15,1	26,7	9,9	463.661
AEB	41,9	21,2	15,6	-34,3	-8,0	-17,6	485.420
ELGAtik kanpokoak	25,2	-5,3	-3,4	-14,5	4,6	7,6	1.192.847

Iturria: Eustat.

Urte osoan zehar alde nabarmena hauteman da EAEko industriako bi merkatu nagusien artean; izan ere, Frantziak euskal produktuen erosketa handitu du, eta Alemaniak, ordea, erritmo handian murriztu ditu erosketak. Horrela, Frantzia da berriro EAEko enpresentzako lehen merkatua, 1.144 milioi euroko salmentekin eta %7,3ko igoerarekin. Aipatu behar da erregai mineralak izan zirela balioan neurtuta ondasunen lehen multzoa, herrialde horri egindako salmenta guztien %20 kontzentratu baitziren eta orain arte leku horretan zeuden metal arruntak gainditu baitzituzten. Alde positiboan, makineria %19,9 hazi zen; garraio materiala (-%9,1) eta metal arruntak (-%6,4), berriz, negatiboak izan ziren.

Alemaniak bigarren postuan jarraitzen du, nahiz eta lau hiruhilekotan jarraian behera egin duen. Azkenaldi horretan, salmenten beherakada %14,2koa izan zen, automobilgintzak herrialde horrekiko merkataritza harremanetan duen pisuak baldintzatuta. Hala, garraio materialaren esportazioak, guztizkoaren ia erdia biltzen baitu, %21,1 murriztu ziren; plastikozkoak eta kautxuzkoak, berriz, %33,6. Alde positiboari dagokionez, makineria aipatu behar da, salmentak %7,6 igo baitziren.

Euskal esportazioen helmuga gisa Italia gero eta pisu handiagoa hartzen ari den arren, aurtengo hirugarren hiruhilekoan beherakada handia izan zuen (-%8,1), neurri handi batean aurreko urteko erregai mineralen erosketa errepikatu ez zelako, baina baita garraio materialaren eta makina eta aparatuen salmenta nabarmen murriztu zelako ere. Metalek eta beren manufaktorek soilik lortu zuten salmentak handitzea (%19,4).

Erresuma Batua Europako gainontzeko herrialde handietatik urundu zen eta EAEko produktuak erosi zituen 464 milioi euroren truke, 2023ko hiruhileko berean baino %9,9 gehiago. Hiru produktu multzotan biltzen dira esportazio gehienak: metalak eta horien manufakturak, %18,1 hazi baitziren, makinak eta aparatuek (%36,7) eta garraio materiala, salmenta %9,5 murriztu baitzuen, Europako gainerako herrialdeetan ikusten den joera orokorraren ildotik.

Europatik kanpo, AEBak dira merkaturik garrantzitsuenak EAEko enpresentzat, hirugarren hiruhilekoan 485 milioi euroko salmentak izan baitituzte, 2023ko aldi berean baino %17,6 gutxiago. Herrialde horretara bideratutako salmenten ia erdia makinak eta aparatuek dira, %36,6ko hazkunde handia izan zutenak. Bigarren talde garrantzitsuenak, hots, metalen eta beren manufakturen salmentek ere emaitza positiboa izan zuten (%5,5). Hala ere, ondasun energetikoen esportazioak, duela denbora bat gehien saldutako produktua zena, %41,1 egin zuen behera eta garraio materialarena, berriz, %76,8.

Garapen bidean dauden herrialdeetara egindako esportazioak %7,6 gehitu ziren, 1.193 milioi euroraino. Neurri handi batean, bultzada hori produktu energetikoen salmentatik etorri zen, eta aurtengo hirugarren hiruhilekoan hamar aldiz biderkatu zuen aurreko urteko aldi bereko zifra. Gainera, merkatu horretan gehien saltzen diren ondasunek ere, hau da, makineriak eta garraio materialak, aldakuntza tasa positiboak izan zituzten, lehenengo kasuan %7,4koa eta bigarrenetan %17,4koa. Gainerako produktuek, ordea, behera egin dute, eta plastikoaren eta kautxuaren kasuan, beherakada handia izan da (-%27,9).

Oro har, Euskaditik garraio materialen esportazioak behera egin bazuen ere, bada harrera ona egin dion merkatu bat: Txina. Izan ere, herrialde horretan eginiko salmentak %32,9 areagotu ziren aurtengo hirugarren hiruhilekoan, 224 milioi eurora iritsi arte, inoiz kontabilizatu den kopururik handiena delarik. Igoera horren zati handi bat, hain zuzen ere, garraio materialaren salmentari zor zaio, %58,2 igo baitzen aurreko urtearen aldean. Bestalde, Brasilerako esportazioak %15,5 murriztu ziren, baina garraio materialaren eta makineriaren salmentak nabarmen egin zuen gora.

Hirugarren hiruhilekoan, atzerritik ekarritako ondasunen inportazioak 6.574 milioi euroko balioa izan zuen, aurreko urtekoa baino %2,6 gehiago. Inportazioen portaera esportazioen justu kontrakoa izan zen: energetikoak murriztu egin ziren (-%12,2) eta ez-energetikoak handitu (%8,5). Deigarria da ikustea garraio materialaren esportazioak behera egin bazuen ere inportazioak gora egin zuela indar handiz (%24,3). Inportazioen egituran pisua duten beste produktu talde batek ere hazkunde nabarmena izan zuen: metal arruntek eta horien manufakturek (%13,7). Bestalde, makinaren eta aparatuen inportazioak aurreko urteko zenbatekoa errepikatu zuen (%0,0).

Eremu geografikoen arabera, inportazioen hazkundera herrialde garatuen eta garapen bidean dauden herrialdeen artean banatu zen. Lehenengoek 4.389 milioi euroko produktuak eman zizkieten EAEko enpresei, aurreko urtean baino %1,5 gehiago, eta bigarrenek 2.185 milioi euro, aurreko urtean baino %5,0 gehiago. Inportazio horietako asko Alemaniatik etorri ziren, hura baita Euskadiko ondasun hornitzaile nagusia, eta salmentak %10,8 handitu zituen, EAEko esportazioak herrialde horretara jaitzi ziren bitartean. Inportazioetan pisua duen beste herrialde batek, Frantziak, euskal enpresei egindako salmentak ere gehitu zituen, kasu honetan %13,3. Bi herrialdeek areagotu egin zuten EAEn saldutako garrario materiala, Erresuma Batuak bezala, baina kasu horretan erosketen hazkundera erregai mineralen hazkunde handiarekin batera etorri zen.

## INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2022	2023	2023		2024		
			IV	I	II	III	III
<b>GUZTIRA</b>	<b>39,7</b>	<b>-8,9</b>	<b>-17,9</b>	<b>-8,7</b>	<b>3,3</b>	<b>2,6</b>	<b>6.573.861</b>
ELGA	32,5	-2,1	-16,2	-9,7	-7,8	1,5	4.389.207
Eurogunea	22,3	1,7	-7,5	-8,3	-3,0	6,4	2.931.556
Alemania	21,5	5,3	-6,4	-8,2	-3,9	10,8	1.002.017
Frantzia	21,8	-13,1	-17,1	-10,8	1,8	13,3	523.532
Italia	15,7	0,1	-5,0	-1,5	-0,5	-9,9	289.364
Erresuma Batua	42,5	-39,8	-42,3	-8,5	10,0	58,4	182.622
AEB	207,0	-13,8	-31,3	10,6	-27,5	-38,7	354.993
ELGAtik kanpokoak	54,5	-21,0	-21,1	-6,3	30,2	5,0	2.184.654

Iturria: Eustat.

Esportazioen eta inportazioen konbinaketak 682 milioi euroko merkataritza saldoa uzten du, Euskadiren aldekoa. Ohikoa denez, EAEko ekonomiaren energia mendekotasuna dela eta, produktu energetikoen saldoa negatiboa izan zen eta 1.114 milioi eurora iritsi zen, produktu ez-energetikoen saldo positiboarekin (1.796 milioi euro) konpentsatu zena. Zifra horiek aurreko aldietakoak baino txikiagoak dira. Herrialdeka egindako analisiak adierazten du Euskadik merkataritza saldo positiboa duela herrialde garatuekiko trukeetan (1.674 milioi euro), eta saldoa negatiboa dela garapen bidean dauden herrialdeekiko (-992 milioi euro). Herrialdeka, EAEk bertan erositakoa baino 621 milioi euro gehiago saldu zizkion Frantziari. Aitzitik, Alemaniarekiko harremana oso orekatua izan da, eta hiruhilekoko saldoa 9 milioi eurokoa baino ez zen izan, ohiko kopuruak baino askoz txikiagoa.

## Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioak aztertzen dituzten adierazleek aurreko hiruhilekoan baino balio apalagoak jaso zituzten azken hiruhilekoan. Hala, barne jatorriko kostuen presioek, BPGaren deflatorearen hazkundeak neurtzen baititu, behera egiten jarraitu zuten, eta %2,5ean kokatu ziren hirugarren hiruhilekoan, aurreko erregistroa baino bost hamarren beherago, 2021. urtearen erdialdetik izandako zifrarik txikiena markatuta. Moderazio hori deflatorearen osagai guztiek izan zuten beheranzko bilakaerak eragin zuen.

Azterketa KPlan fokatuta, adierazle horrek ekainean hasitako beheranzko joera alde batera utzi zuen eta igoyeraren bidea berreskuratu zuen. Hain zuzen ere, azaroan, ditugun azken datuak hileko horretakoak baitira, inflazioa %2,9ra igo zen. Igoera hori elektrizitatearen, gasaren eta erregaien garestitzeak eragin zuen batez ere, eta neurri txikiagoan, elikagaien prezioetan erregistratutako BEZaren lehengoratzek.

### KONSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2022	2023	2024			Ekarpena
			II	III	Azaroa	
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	<b>8,0</b>	<b>3,6</b>	<b>3,6</b>	<b>2,5</b>	<b>2,9</b>	<b>2,9</b>
<b>Azpiko inflazioa (%84,6)</b>	<b>5,1</b>	<b>6,2</b>	<b>3,1</b>	<b>2,8</b>	<b>2,8</b>	<b>2,4</b>
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	4,8	4,0	4,0	0,6
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	0,9	0,9	0,9	0,2
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	3,5	3,1	3,3	1,6
<b>Hondar inflazioa (%15,4)</b>	<b>19,5</b>	<b>-6,4</b>	<b>6,2</b>	<b>0,7</b>	<b>3,1</b>	<b>0,5</b>
- Landu gabeko elikagaiak (%6,5)	10,8	7,3	5,6	2,9	1,5	0,1
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	6,0	-1,5	4,2	0,4

Iturria: INE.

Produktu energetikoei dagokienez, nabarmendu behar da elektrizitateak gorakada nabarmena izan zuela oraingo honetan, eta horren aldaketa oso lotuta dago Espainiako merkatu elektrikoaren portaerarekin. Merkatu arautuaren %40an eta librearen %60an banatzen da, eta azken horri egotzen zaio gorakada. Elektrizitateak ez bezala, petrolioak, urrian udatik izandako erregistrorik handienak markatu ondoren, azaroan Brent petrolio gordina 75 dolarretik behera

jaitsi zen upeleko, Israelek Iranen energia azpiegiturari eraso egingo ote zion beldurra murriztu baitzen. Era berean, petrolioaren merkatua ongi hornituta egongo dela aurreikusten da, Libiako petrolioaren ekoizpena berriz martxan jarriko delako eta LPEEren ekoizpen murrizketak gutxituko direlako.

Inflazioak azken hilabeteetako beheranzko joera alde batera uzten lagundu zuen beste elementu bat BEZak elikagaietan izan zuen eragina izan zen, normalizazio prozesuarekin jarraitu baitzuten. Hori horrela izanda, joan den urrian amaitu zen Gobernuak 2022an onartu zuen oinarrizko elikagaiei BEZa jaistea, inflazioaren igoera betean, Ukrainako gerra piztu ondoren. Horrela, oliba olioari eta behar-beharrezko janariei zergapetzen zaien zerga tasa uztailan finkatutako %0tik %2ra igotzea onartu zen, eta hazi olioiei eta pastari aplikatzen zaiena, berriz, %5etik %7,5era igotzea.

Azken hilabeteetan bezala, Euskadiko inflazioak Europako inguruko herrialdeetako gainditu zuen, baina egia da oraingo aldeak aurtengo bigarren hiruhilekoan erregistratutakoak baino apalagoak izan zirela. Zehatz-mehatz adierazita, Europako inflazioak, balio handietara iritsi ondoren, beheranzko joera erakutsi zuen, eta irailean %2tik behera, hau da, EBZren helburutik behera, kokatu zen, lehen aldiz azken hiru urtean, nahiz eta ondorengo hilekoetan pixka bat igo zen. Inflazioa moteldu egin zenez, erakunde horrek ekainetik interes tasa lau aldiz murriztea erabaki zuen.

Lehenago ere aurreratu den bezala, inflazioak beheranzko joera geldiarazi zuen, aurreko hilabeteetan erakutsitako moderazioaren ondoren, aurtengo azken hilabeteetan apur bat goratzen jarraitzeko igurikimenarekin. Epe laburrera aurreikusten den igoera horren atzean, batez ere, lehengai energetikoekin lotutako oinarrizko goranzko ondorioak nabarmentzen dira, tentsio geopolitikoaren gorakadak aurrera egingo balu, goranzko arriskuak ere areagotu baititzakete. Era berean, fenomeno meteorologiko kaltegarriek elikagaien prezioak igotzea eragin dezakete.

Beste aldetik, azpiko inflazioa inflazio globalaren azpitik geratu zen (%2,8 eta %2,9 hazi ziren, hurrenez hurren), eskuragarri dauden azken datuen arabera (azarokoak). Gertaera hori ez zen gertatu joan den ekainetik. Hala, landutako elikagaiak maximora iritsi ziren 2023aren hasieran (%16,5), eta gero eta balio txikiagoak izan zituzten. Bien bitartean, zerbitzuek beheranzko erresistentziari eutsi zioten, turismoaren prezioen ondorioz. Azkenik, industriaren ondasun ez-energetikoek, neurri batean, zerbitzuen inflazioa konpentsatu zuten, %1etik beherako aldakuntza tasetan jarraitu baitzuten.



Aitzitik, hondar inflazioak azken hilabeteetako balio negatiboak alde batera utzi zituen, batez ere bi osagai nagusietako baten bilakaerak eraginda. Batetik, landu gabeko elikagaiek, landutako elikagaiek ez bezala, urte hasieran erakutsi zituztenak baino erregistro txikiagoak izaten jarraitu zuten. Beste aldetik, osagai energetikoaren inflazio tasaren hazkundera elektrizitatearen handizkako merkatuaren batez besteko prezioan izandako hazkunderaren isla izan zen.

Lehenago ere aipatu den elektrizitatearen eta gasaren prezioen igoeraren ondorioz, etxebizitza atalak izan zuen igoerarik handiena, eta KPlaren saskia osatzen duten talde guztien artean hura izan zen inflazionistena. KPlaren igoeran partaidetza handiena izan zuten taldeen artean, hotelak, kafetegiak eta jatetxeak biltzen dituen ere nabarmendu zen, turismoaren bilakaera onak eraginda. Era berean, elikagaien taldeak, azken erregistroak moderatuagoak izan arren, inflazio handieneko taldeen buru izaten jarraitu zuen. Aitzitik, garraioa izan zen aldakuntza tasa negatiboak izan zituen talde bakarra, erregaien bilakaerak azken hilabeteen aldean gora egin bazuen ere.

#### EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023		2024			Azaroa
			IV	I	II	III		
<b>Indize orokorra</b>	<b>8,0</b>	<b>3,6</b>	<b>3,4</b>	<b>3,3</b>	<b>3,6</b>	<b>2,5</b>	<b>2,9</b>	
Janariak eta alkohol gabeko edariak	11,2	11,1	8,3	5,8	5,3	3,7	3,0	
Edari alkoholodunak eta tabakoa	4,3	7,0	5,8	4,3	3,8	4,1	4,5	
Jantziak eta oinetakoak	2,8	2,0	1,5	1,4	0,9	1,1	0,9	
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	15,8	-12,0	-7,1	-0,3	4,8	3,5	8,3	
Etxeko hornidura	6,6	6,0	3,7	2,3	1,1	1,3	1,2	
Medikuntza	0,6	2,3	2,3	2,7	2,9	2,8	2,8	
Garraioa	11,2	0,3	2,4	2,2	3,2	-0,8	-0,7	
Komunikazioak	-1,2	3,2	3,3	0,5	0,0	-0,2	0,1	
Aisia eta kultura	3,2	4,6	3,2	3,3	2,3	1,1	2,4	
Irakaskuntza	1,6	1,9	2,1	2,2	2,2	2,2	2,4	
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	6,0	6,2	5,8	5,0	4,5	3,9	3,6	
Besteak	3,8	5,4	4,7	4,2	3,4	3,5	3,6	

Iturria: INE.

IPRIari dagokionez, ezkutuko presioek moderatuak izaten jarraitu zuten, baina oraindik ez dago maila txikietatik gora egiten ari den zantzurik. Hala eta guztiz ere, prezioen eraketa prozesuaren

lehen faseetan izandako jaitsierek eragin zuten beherakada ia osoa, hain zuzen ere, energiaren ekoizpenaren prezioetan. Bestalde, bitarteko ondasunen ekoizpen prezioek bere horretan jarraitu zuten, eta ekipamendurako ondasunak, berriz ere, gehien garestitu zirenak izan ziren, nahiz eta aldakuntza tasa apalak jaso zituzten.

Urtean zehar izandako inflazioaren moteltzea, azken hilabeteetako igoera gorabehera, ahalbidetu zuen soldatek 2022an, Ukrainako gerra hasi ondoren, galdutako erosteko ahalmenaren zati bat berreskuratzen jarraitzea. Hain zuzen ere, urrira arte, Euskadin erregistratu diren eta indarrean dauden hitzarmenak %3,3 igo ziren, eta hilabete horretako KPIa, berriz, %2,3. Era berean, lurraldeko sektoreko hitzarmenek (%3,4), azken hilabeteetan gertatu den bezala, enpresenak (%3,2) baino hazkunde handiagoak izan dituzte. Azkenik, nabarmentzekoa da 2024an negoziazio kolektiboak izan zuen bizkortzea; izan ere, soldatapekoen %65,5ek dagoeneko eguneratuta dituzte lan baldintzak, eta, horrela, aurreko ekitaldia amaitu zeneko emaitza errekorra (%63,8) hobetu da.

#### HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2022	2023	2024 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,7	1,2	4,1	4,2	3,3
- Urtean zehar sinatutakoak	1,2	1,1	4,1	4,7	3,7
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,7	1,0	3,9	4,3	3,4
- Enpresako hitzarmenak	1,7	1,9	4,7	4,1	3,2

(\*) 2024ko azaroa arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, langile bakoitzeko lan kostuek alde batera utzi zuten azken aldietako beheranzko joera, eta %3,6ko igoera izan zuten hirugarren hiru hilekoan. Horrela, gainditu egin zuten inflazioak aldi horretan izan zuen gorakada, baina ez zen halakorik gertatu 2023ko hirugarren hiru hilekotik, eta, ondorioz, soldatapekoen erosteko ahalmena handiagoa izan zen. Era berean, orduko lan kostuek ere igoera nabarmenak izan zituzten, azken hiru hilekoko balio negatiboen ondoren. Azkenik, hitzartutako orduak balio negatiboetan jarraitzen dute (-%0,3), nahiz eta benetan lan egindako denbora, benetako orduen bidez neurtuta, handitu egin zen berriro, apur bat bakarrik izan zen arren(%0,1).

## LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023		2024		
			III	IV	I	II	III
Lan kostu guztiak langileko	2,7	4,5	4,2	2,2	2,2	1,9	3,6
- Soldata kostua guztira	2,9	3,7	3,9	0,7	1,9	2,5	3,7
- Bestelako kostuak	2,2	6,9	5,0	6,8	3,1	0,2	3,3
Lan kostu guztiak orduko	2,6	5,0	3,5	3,6	6,4	-0,8	3,5
- Soldata kostua guztira	2,8	4,2	3,2	2,1	6,1	-0,2	3,6
- Bestelako kostuak	2,2	7,3	4,3	8,3	7,2	-2,5	3,3
Adostutako lan orduak	-0,5	0,1	-0,3	0,2	-0,3	-0,3	-0,5
Benetan lan egindako orduak	0,4	-0,5	0,6	-1,4	-3,9	2,8	0,1

Iturria: INE.

## Arlo publikoa

Urrira arte metatutako zergen bidezko diru bilketa %1,1 igo zen 2023ko aldi beraren aldean, eta, beraz, azken hilabeteetako goranzko joerarekin jarraitzen du, egungo ziurgabetasun ekonomikoa gorabehera. Hain zuzen ere, 15.200 milioi euro baino gehiago bildu ziren, eta kopuru errekorra izan arren, nekez beteko da diru bilketaren aurreikuspena, aurten %4,3koa baitzen, mutualistei egindako PFEZaren itzulketek aurtengo diru kutxa publikoetan izango duten eraginagatik.

Itzulketa horiek Auzitegi Gorenaren epaien ondorio dira. Epai horiek 1979ra arte egindako ekarpenak kontuan ez hartzeagatik pentsioetan izan zituzten atxikpenak berreskuratzeko eskubidea aitortu zieten mutualistei. Horrek guztiak 800 milioi euro inguruko eragina izango du aurtengo diru bilketan, eta 200 milioi ingurukoa 2025ean.

Analisia zuzeneko zergen bilakaerarekin hasita, adierazi behar da Euskadik 5.713 milioi euro bildu dituela PFEZaren bidez urrira arte, hots, aurreko ekitaldian baino 32 milioi gehiago. Diru kopuru horiek %0,6ko hazkundera islatzen dute. Igoera horiek aurreko ekitaldietan eskuratutakoak baino apalagoak badira ere, bilketa osoari ekarpen handiena egiten dion zerga mota izaten jarraitzen du. Gorakada hori, beste behin ere, enpleguaren goranzko joeraren emaitza izan zen, laneko atxikpenak 5.971 milioi eurora iristea ahalbidetu baitzuen, %7,4ko gehikuntza batekin.

## TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-urria)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2023	2024	% Ald. 24/23
PFEZ	5.681.034	5.713.310	0,6
Sozietateen gaineko zerga	1.667.108	1.783.941	7,0
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	162.639	149.848	-7,9
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	129.510	130.299	0,6
Ondarearen gaineko zerga	174.884	194.880	11,4
Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga	29.739	29.493	-0,8
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	-295	10.591	-
<b>ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>7.844.620</b>	<b>8.012.362</b>	<b>2,1</b>
BEZ	5.593.637	5.485.990	-1,9
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	139.973	152.642	9,1
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	29.456	32.301	9,7
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	21.576	24.933	15,6
Estatuarekin doikuntzak dituzten zerga bereziak	1.134.981	1.157.420	2,0
Elektrizitatearen gaineko zerga berezia	8.639	35.102	326,5
Aseguru sarien gaineko zerga	96.267	101.912	5,9
Joko jardueren gaineko zergak	5.945	6.264	5,4
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	3.925	9.458	141,0
Finantza-transakzioen gaineko zerga	50.666	69.483	37,1
Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga	11.120	11.952	7,5
Zaborte gietan hondakinak uztearen gaineko zerga	8.291	14.666	76,9
Iraungitako zergak	2	-307	-
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>7.104.479</b>	<b>7.101.817</b>	<b>0,0</b>
<b>TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>99.127</b>	<b>93.422</b>	<b>-5,8</b>
<b>TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA</b>	<b>15.048.226</b>	<b>15.207.601</b>	<b>1,1</b>

Iturria: Foru aldundiak.

Zuzeneko zergekin jarraituz, sozietateen gaineko zergaren bilakaera nabarmendu behar da, zerga mota desberdinen artean gehien handitu zena izan baitzen (%7,0), enpresen egoeraren

hobekuntzak lagunduta, inflazioa aurreko aldietan baino modu txikiagoan handitu zen garai batean.

Azterketa zeharkako zergan zentratuta, adierazi behar da BEZak azken hilabeteetako emaitza negatiboak errepikatu zituela (-%1,9), urtearen hasieran oinarrizko elikaduran zerga tasak jaisteak diru sarreren galera ekarri zuelako. Era berean, kontsumo pribatuan izandako moteltze leunak zerga horren bilketaren beherakada eragin zezakeen. Hala eta guztiz ere, produktu energetikoen tasak pixkanaka normaltasunera itzultzeak aldeko eragina izango du zerga horren bilketan datozen hilabeteetan.

Aitzitik, zerga bereziek portaera positiboa izan zuten (%2,0), Estatuarekin doikuntzak egin ondoren. Hala ere, doikuntzen aurreko bilketa negatiboa izan zen, hidrokarburoen bilketan izandako jaitsieragatik (-%2,1), automobilgintzako gasolioaren kontsumoaren emaitza txarragoak zirela eta. Era berean, alkoholaren gaineko zergetan ere galera bat erregistratu zen iazko datuekin alderatuta (-%13,4).

## **Arlo finantzarioa**

Azken datu ekonomikoek, banku zentral nagusien mugimenduek, diru politiken bideari buruzko igurikimenen doikuntzek eta AEBetako presidentetzarako hauteskondeek baldintzatu zuten finantza merkatuen bilakaera aurtengo laugarren hiruhilekoan. Izan ere, EBZk ekainean hasitako interes tasen jaitsierekin jarraitu zuen, eta bi murrizketa gehiago egin zituen urrian eta abenduan, diruaren prezioa %3,0an utzi arte. Espero ziren beherakada hauek helburu bikoitza dute. Alde batetik, hazkunde ekonomikoa oztopatuko ez duen tasa neutral baterantz aurrera egitea, inflazioaren hobekuntza argiaren aurrean eta Frantzian eta Alemanian hazkunde txikiarekiko eta zurrunbiloekiko gero eta kezka handiagoaren aurrean. Bestalde, zuhurtziazko mezu bat bidaltzea, prozesu geldo eta jarraitu baten alde eginez eta prezioen egonkortasunaren aldeko borroka oraindik irabazitzat eman gabe.

Europako burtsa eta dibisa merkatuek ez zuten ia erreakziorik erakutsi erabaki horien aurrean, guztiz aurreikusita baitzeuden; hala ere, euroaren balio irabazi puntuala ekarri zuen, gerora galdu egin zena, eta Europako burtsen gorakada txiki bat.

## ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2022	2023	2024					
			Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azar.	Abe.(**)
<b>Interes tasa ofizialak (%)</b>								
Europako Banku Zentr.(*)	2,0	4,0	3,75	3,75	3,5	3,25	3,25	3,0
Erreserba Federala	4,25-4,5	5,25-5,5	5,25-5,5	5,25-5,5	4,75-5,0	4,75-5,0	4,5-4,75	4,25-4,5
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	0,25	0,25	0,25	0,25	0,25	0,25
Ingalaterrako Bankua	3,5	5,25	5,25	5,0	5,0	5,0	4,75	4,75
Txinako Banku Popular	3,65	3,45	3,35	3,35	3,35	3,10	3,10	3,10
Brasilgo Banku Zentrala	13,75	11,75	10,5	10,5	10,75	10,75	11,25	12,25
<b>10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna</b>								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	109	97	82	86	82	73	70	67
Grezia	203	105	104	110	104	96	84	82
Erresuma Batua	111	151	164	173	190	209	216	219
Italia	213	168	135	140	132	125	107	115
AEB	127	184	181	169	167	191	209	214

(\*) Gordailu tasa. (\*\*) Abenduaren 16ko datuak

Iturria: Espainiako Bankua.

Aitzitik, Atlantikoaren beste aldean, AEBetako presidentea aukeratzeko hauteskundeak Donald Trumpek irabazi izanak merkatuak astindu zituen. Desarautzearen, zerga murrizketen eta hazkundea sustatzeko muga zergen ikuspegiak arrisku aktiboen gosea piztu zuen, batez ere AEBetan bertan, eta horrek burtsen errebote nabarmenak eta dolarraren errealizazio esanguratsua ekarri zituen. Hala ere, horrek ez zuen aldatu Fed-en ibilbide orria, azaroko eta abenduko bileretan tasak %0,25 murriztu baitzituen, eta diruaren interes-tasa %4,25 eta %4,50 artekoa izan baitzen. Hori erlaxazio puntu portzentual bat da Erreserba Federala irailean tasak murrizten hasi zenetik.

Datozen hilabetei begira, Fedek eta EBZk tasak jaisten jarraitzea aurreikusten da, baina lehenengo kasuan Europako agintariaren eremuan baino kontu handiagoz. Izan ere, AEBetan, inflazio orokorrak gora egin zuen berriro azaroan, eta baliteke berriro ere gora egitea, Trumpen Administrazio berriaren balizko neurri fiskalek eta muga zergek eragindako inflazio arriskuen ondorioz. Horregatik guztiagatik, Fedek azaldu zuen doikuntza gehigarriak kontuan hartu ahal

izateko "kontu handiz ebaluatuko" direla argitaratzen diren datu ekonomikoak eta etorkizuneko arriskuak.

Erresuma Batuko (%4,75), Suediako (%2,75) eta Danimarkako (%2,85) banku zentralek ere murriztu zituzten interes tasa ofizialak. Norvegiako Banku Zentralak bakarrik mantendu du bere erreferentziako interes tasa (%4,5) aldatu gabe, merkatuak aurreikusi zuen bezala, eta berretsi zuen espero duela tasak maila horretan jarraitzea urtearen gainerako denboran. Lehen murrizketak 2025eko lehen hiruhilekotik aurrera has daitezke, Europaren eta AEBen arteko balizko muga zergen gerrak inflazioan izango duen eragina zein izango den jakin gabe.

Interes tasa subiranoei dagokienez, Europako 10 urterako zorrei eskatzen zaien errentagarritasuna pixka bat handitu zen, oro har, EBZk tasak gehitu ondoren. Hala eta guztiz ere, gorakada horiek oso txikiak izan ziren, eta ez ziren arrisku sarietara pasa, beheranzko bideari eutsi baitzioten. Hori guztia, nahiz eta Frantzia gertakari zurrunbilotsua izan, bonu frantsesari eskatutako errentagarritasuna handitu eta %3,2ko langara hurbildu baitzuen. Gobernuak defizita zuzenduko duten aurrekontu-murrizketak onartzeko dituen zailtasunek azaltzen dute gorakada hori. Zorionez, beste erreferentzia batzuk kutsatzearen ondorio beldurgarria ez zen gertatu, eta tradizionalki ezegonkorragoak izan diren herrialdeen zorraren errentagarritasunak behera egin du.

Abenduan joera horretatik aldendu zen herrialdea Alemania izan zen, eurogunerako hartzen den erreferentzia baita. Alemaniako 10 urterako zorraren errendimendua Olaf Scholzen Gobernuaren beherakadak eta atzeraldi arriskuak presionatu zuten. Ondorioz, Alemaniako 10 urterako bonuaren errentagarritasuna %2tik behera jaisteari uko egin zion. Are gehiago, hileko bigarren erdian goranzko bideari heldu zion berriro (%2,25), eta gainerako EBko kideek murrizketekin jarraitu zuten. Horren guztiaren alde positiboa arrisku primek bizi izan zuten, diferencialak estutzen ari zirela ikusi baitzuten. Horrela, Espainiako arrisku saria oinarrizko 70 puntuen azpitik jaitsi zen (67), eta 2021eko urriko mailetan kokatu zen, Italiakoa bezala, 110 oinarrizko puntuen azpitik. Greziakoa, berriz, oinarrizko 80 puntu ingurukoa izan zen, 2008ko irailean izan zuena bezalakoa, euroguneko zorraren krisia piztu aurretik. AEBen kasuan, Trumpek hauteskundeak irabazi ostean, tasa subiranoen hasierako errebotek eskatutako errentagarritasunaren beherakada ekarri zuen, %4,4 inguruan kokatu zena.

Errenta aldakorreko merkatuari dagokionez, 2024 urte ona izaten ari da. Merkatu estatubatuarrean, burtsako indize nagusiek irabazi handiak izan zituzten, tasa subiranoen jaitsierak eta zerga jaitsieren eta Trumpen Administrazio berriaren erregulazio txikiagoaren igurikimenez lagunduta. Zehatzago, S&P 500 indizeak %26tik gorako balio handitzea izan zuen, eta Nasdaq-ek, berriz, ia %33ko irabazi historikoak. Europako burtsek ere irabazi handiak eskuratu zituzten, Frantziako CACek izan ezik, %1,8ko galerak izan baitzuten. Gainerakoei

dagokienez, Alemaniako DAX nabarmendu da, %22 inguru irabazi baitu, konpainia teknologikoek eta automobilekoak ez diren beste esportatzaile batzuek bultzatuta, eta, ondoren, Ibex-35 (+%16,3) eta Italiako MIB (+%15). Ibex-35 indizearen kasuan, Espainiako burtsa 12.100 puntutik gora kokatzera iritsi zen. 2010eko urtarrilera jo behar da, duela 14 urtera, saio baten itxieraren antzeko maila aurkitzeko.

## ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2022	2023	2024					
			Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azar.	Abe.(**)
<b>Truke tasak</b>								
Dolarra/euro	1,054	1,082	1,084	1,101	1,111	1,090	1,063	1,052
Yena/euro	138,0	151,9	171,2	161,1	159,1	163,2	163,2	161,5
Libera esterlina/euro	0,852	0,871	0,843	0,852	0,840	0,835	0,834	0,830
€ efektibo nomin.(%)	95,6	98,2	99,0	99,0	98,8	98,2	97,5	96,8
<b>Burtsa indizeak (*)</b>								
IBEX35	-5,6	22,8	9,5	12,9	17,6	15,5	15,2	16,3
Eurostoxx-50	-11,7	19,2	7,8	9,6	10,6	6,7	6,2	9,9
Dow Jones	-8,8	13,7	8,4	10,3	12,3	10,8	19,2	16,3
Nikkei 225	-9,4	28,2	16,9	15,4	13,3	16,8	14,0	17,9
Standard & Poors 500	-19,4	24,2	15,8	18,4	20,3	19,6	26,5	26,9

(\*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilearen azken egunera arte. (\*\*) Abenduaren 16ko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua eta Expansion.

Dibisa merkatuetan, hiruhilekoko balantzean, euroak balio apur bat galdu zuen AEBetako dolarren aldean. EBZak tasak jaitsi izanak eta datozen hilabeteetan mugimendu hori errepikatzeko igurikimenek euroaren balio galera bizkortu zuten. Izan ere, hiru astetan, Europako dibisa 1,12 dolarretik 1,078 dolarrera igaro zen irailaren amaieran. Argitaratutako azken adierazle ekonomikoen ahuleziak ere ez zion moneta bakarrari mesede egin. Eurogunearen ahultasun ekonomikoa areagotu egiten da eta tipoen murrizketa gehiagoren igurikimenak elikatzen ditu. Zerbitzuen sektoreak enpresen jarduerari eutsi dio, baina ahulezia erakusten du, eta horrek, AEBetako Administrazio berriaren muga zergen mehatxuekin batera, euroa are gehiago hondoratzen lagundu zuen. Horren guztiaren ondorioz, abenduan, moneta bakarra euro bakoitzeko 1,05 dolarretik behera jaitsi zen, eta parekotasunera hurbildu zen, hau da, urteko maximoetatik %6,7 jaitsi zen.



Libera esterlinaren aldean bilakaera ez zen askoz hobeia izan. Orain arte, euroak %3,57ko balio galera metatu du Erresuma Batuko dibisaren aldean, eta %1,8koa, berriz, Txinako renmimbiaren aldean. Horren guztiaren ondorioz, euroaren truke tasa efektiboa 2020ko azarotik izan duen balio minimoan kokatu da.

Euriborrari dagokionez, irailean inflazioa %2,0tik behera moteldu izanak (2021eko ekainetik ez zen horrelakorik gertatzen) eta euroguneko hazkunde ekonomikoaren hazkunde tasa apalekiko kezka gero eta handiagoak, bereziki Alemanian, diru politika laxoagoa babestu zuten, eta horrekin batera, hipoteken adierazle nagusiaren beherakada, beheranzko joera oso azkarra izaten ari baita. Zehatzago adierazita, irailean %3,0ko muga psikologikoa hautsi zuen, ia bi urtez gainera egon ondoren, eta azaroan %2,506an kokatu zen. Datu horrek esan nahi du 1,516 puntuko aldea dagoela iazko hilabete berarekin alderatuta; izan ere, 2023ko azaroan euriborra %4,022an kokatu zen. Azken hamabost urteetako jaitsierarik handiena da, 2009ko abendutik. Zehazki, 2009an, euriborrak %1,242an itxi zuen urteko azken hilabetea, hau da, oinarrizko 2,21eko beherakada izan zuen 2008ko hil beraren aldean (%3,452). Zehazki, 2009an, euriborrak %1,242an kokatu zen urteko azken hilabetea, hau da, 2,21 puntuko beherakada izan zuen 2008ko hil beraren aldean (%3,452).

Abenduan, inflazioak pixka bat gora egin bazuen ere, beheranzko joera horri eutsi zaio, eta Euriborra %2,4tik behera jaitsi da unean-unean. Horrek esan nahi du urteko beste minimo bat ezarri duela aurtengo azken hilabetean.

Euriborraren beherakada azkarraren ondorioz, analisten aurreikuspenak berehala zaharkitzen ari dira. Urte honen amaierarako, 20 analisi zerbitzuren iragarpenak jasotzen dituen Funcasen Panelak Euriborra %2,8an kokatzea espero zuen iraileko azken berrikuspenean. Urte honen amaierarako, 20 analisi zerbitzuren iragarpenak jasotzen dituen Funcasen Panelak Euriborra %2,8an kokatzea aurreikusi zuen iraileko azken berrikuspenean. Aurreikuspen bera zuen Finantza Erabiltzaileen Elkarteak (Asufin). Bankinterrek zifra txikixeagoa ere aurreikusten zuen, irailean Euriborrak ekitaldia %2,75ean itxiko zuela iragarritz. Hala ere, norabide aldaketa bat izan ezik, estimazio horiek guztiak errealitatearen gainetik geratuko dira. Abenduko batez bestekoa %2,410ekoa da gaur egun, eta joera hori aldatzen duen katalizatzailearik ez da ikusten epe laburrera.


Euriborraren beherakadak, EBZk interes tasak deseskalatzeak eta inflazio apalagoak hipotekak berpizten lagundu dute. Euriborraren beherakadak, EBZ interes tasak jaisteko aurrera eramaten ari den prozesuak eta inflazio apalagoak hipoteken kopurua gorarazten lagundu dute. Soilik irailean 2.290 mailegu berri inskribatu ziren etxebizitza erosteko, hau da, aurreko urtean jasotakoak baino %40,5 gehiago. Zifra hori handiena da 2022ko ekainetik, eta irailik onena

2010etik. Ondorioz, hirugarren hiruhilekoan 5.614 hipoteka formalizatu ziren, aurreko urteko hiruhileko berean baino %22,0 gehiago.

### Etxebizitzen hipoteken bilakaera

Batez besteko zenbatekoa (ezkerrean, milak)  
hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Hiruhilekoko datuekin jarraituz, bereziki nabarmendu behar da etxebizitzaren gaineko hipoteken batez besteko zenbatekoa %29,0 hazi dela, 167.082 eurora iritsiz, 2003tik izan den baliorik handiena. INEk argitaratutako azken datuen arabera, hirugarren hiruhilekoan 25 urteko batez besteko epearekin erregistratutako etxebizitzaren gaineko hipoteken %60,6 interes tasa finkokoak izan ziren, %3,30eko hasierako batez besteko tasarekin. Aitzitik, hipoteken %39,4 tasa aldakorrean eratu ziren, %2,92ko batez besteko tasarekin.

Urteko hirugarren hiruhilekoan, Espainiako Bankuaren banku maileguei buruzko inkestaren arabera, etxebizitzak erosteko familiei emandako maileguak onartzeko irizpideak lasaitu egin ziren, batez ere bankuen arteko lehiagatik. Aitzitik, kontsumorako kreditua uste baino gehiago gogortu zen, batez ere arrisku gehigarrien pertzepzioagatik. Enpresei dagokienez ere erlaxazio txiki bat izan zuten emateko irizpideetan, eta horrek ekarri zuen, 2022ko hirugarren hiruhilekotik lehen aldiz, maileguen eskariaren eta kreditu lerroen erabilpenaren hazkunde garbi neurritsua, nahiz eta, oro har, ahul mantendu zen.

Hala eta guztiz ere, EAEko eragileek zorpetzea gutxitzeko bideari ekin zioten berriro, eta datu puntualtzat utzi zuten urteko bigarren hiruhilekoan izandako igoera. Konfiantza adierazleek, hobera egin bazuten ere, txikiak izaten jarraitzen dute, eta horrek zaildu egiten du etorkizuneko

portaera aurreikustea. Ondorioz, EAEko familia eta enpresa askok zorpetze maila murrizten jarraitzen dute. Xehetasunez, kreditu guztiak %2,9 jaitsi ziren, sektore pribatuak (-%1,9) eta publikoak (-%9,2) behera egin zutelako.

## KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2022	2023	2023		2024			Aldea 2022-II eta 2024-III artean	
			IV	I	II	III	III	Milioi €	Tasa
<b>Kredituak</b>	<b>-0,5</b>	<b>-4,9</b>	<b>-4,9</b>	<b>-3,5</b>	<b>-2,1</b>	<b>-2,9</b>	<b>65.896,4</b>	<b>-6.732,5</b>	<b>-9,3</b>
Arlo publikoa	-0,7	-6,0	-6,0	-3,6	1,0	-9,2	8.458,8	-1.750,2	-17,1
Arlo pribatua	-0,5	-4,8	-4,8	-3,5	-2,6	-1,9	57.437,6	-4.982,3	-8,0
<b>Gordailuak</b>	<b>1,5</b>	<b>-1,4</b>	<b>-1,4</b>	<b>1,1</b>	<b>2,9</b>	<b>5,0</b>	<b>100.473,5</b>	<b>2.049,1</b>	<b>2,1</b>
Arlo publikoa	5,3	1,2	1,2	7,3	11,8	13,8	11.916,6	3.167,8	36,2
Arlo pribatua	1,1	-1,7	-1,7	0,4	1,9	3,9	88.556,9	-1.118,7	-1,2
Agerikoak	2,0	-8,9	-8,9	-8,7	-6,2	-3,5	73.301,2	-9.716,1	-11,7
Eperakoak	-18,3	92,3	92,3	111,7	82,7	64,4	15.255,7	8.597,4	129,1

Iturria: Espainiako Bankua.

Gordailuei dagokienez, %5,0 hazi ziren urteko hirugarren hiruhilekoan, 100.473 milioi eurotik gora, aurrekaririk gabeko maila baita. EBZk interes tasak murriztu zituen arren, finantza erakundeek oraindik ez dute murrizketa hori EAEko aurreztaileei eskaintzen dizkieten interesetara eraman. Izan ere, EBZk interbentzio tasak handitu zituenean ordainsarien igoera aplikatzeko denbora behar izan zuten bezala, banketxeak geroraten ari dira gordailuei eskainitako interes tasak murrizteko erabakia. Kasu honetan, bankuek EBZren korrontearen kontra jotzea eragin duten arrazoiak aurrezkoa lortzeko elkarren artean lehiatzen hasi izanari egotzi behar zaizkio; izan ere, orain arte sisteman zegoen gehiegizko likidezia (gordailuen tasak igotzeari uko egiteko arrazoiak) gero eta txikiagoa da, eta gordailuak erabiltzen dituzte dirua erakartzeko.

Hain zuzen ere, lehia eperako gordailuetan dago, batez ere epe laburrekoetan, finantza erakundeek ez baitute arriskatu nahi EBZren etorkizuneko murrizketekin. Zehatzago adierazita, familien eta sozietate ez-finantzarioetako gordailuen batez besteko ordainsariak gora egiten jarraitu zuen udako hilabeteetan. Eperako gordailuen batez besteko tasa haztatua %2,6tik gorakoa izan zen familientzat eta %3,4tik hurbil geratu zen sozietate ez-finantzarioen kasuan. Ageriko gordailuen ordainsariak egonkor jarraitu zuten: %0,19 familientzat eta %0,72, berriz,

enpresentzat. Horrek esan nahi du ageriko funtsak eperako gordailuetara eramaten jarraitu dela.

Hala ere, banku gordailuen errentagarritasunak ez du luze iraungo egungo interes tasekin. Irailean oinarrizko 20 puntuko murrizketa hauteman zen ordaindutako tasetan, eta abenduan areagotu egingo da, EBZk diruaren prezioa gutxitu zuelako. Horrek esan nahi du gaur egun tresna horiek eskaintzen duten ordainsaria murriztu egingo dela bankuek diru politika berria ezarri ahala. Halaber, ez da ahaztu behar 2025erako interes tasetan murrizketa gehiago espero direla, eta horrek mozkinari eragiten jarraituko duela.

## **Aurreikuspenak**

Nazioarteko erakunde nagusiek, hala nola ELGak eta NDFk, bat egiten dute hazkunde agertoki egonkor bat marraztean, nahiz eta zifretan apala izan (%3,2 edo %3,3 besterik ez), munduko ekonomiarentzat hurrengo urteetan. Hazkunde proiektio horiekin batera, inflazio aurreikuspen kontrolatuak eta ekonomia handi aurreratuetakoko helburuekin lerrokatuak daude, eta diru politika normalizatzeko bidea emango dute. Horrela, denbora muga horren amaieran, munduko ekonomiaren egoera finkatuta eta pandemiaren aldi baterako shocketatik eta Errusiaren Ukrainako inbasiotik libre egongo da, eta, hori bai, bi ekitaldiek eragindako egiturazko aldaketek bere horretan jarraituko dute. Horietako batzuk jada igartzen dira inflazioko tentsio handiago gisa Europako edo Japoniako ekonomietan, zeinetan interes tasa naturala oso baxutzat jo den joan den hamarkada osoan. Txinako ekonomiaren kasuan, testuinguru berriak hurrengo urteetan %5etik beherako hazkunde tasetan utziko du bere etorkizuneko bilakaera, higiezinen sektorean arazoak baititu eta kontsumo ahula izango baitu, BPGarekiko %40 inguruko frakzioa, interes tasen jaitsierekin suspertzeko ahaleginak egin arren. Horrela, India izango da, ekonomia handien artean, datozen urteetan hazkunderik handiena izango duena, %7tik zertxobait beherako erritmo egonkorrean, batez ere inbertsio publikoak gora egingo duelako, nagusiki azpiegituretan, eta kontsumo pribatua ere indartuta dagoelako, betiere inflazioa moderatzeko igurikimenak berresten badira. Horrela, munduko ekonomian duen partaidetza %7,5etik %10era igo liteke 2023an, NDFren arabera.

Txostenen arabera, munduko merkataritzaren bolumenaren hazkundeak egonkor jarraituko du, baita aurreikusitako hazkunde ekonomikoarekin ere. Hala ere, ingurune geopolitiko arraroaren ondorioz, nazioarteko merkataritza zatituagoa hauteman daiteke. Bertan, blokeen arteko tentsioek merkataritzaren nazioartekotze handiagoa mugatuko dute, eta hazkundera, batez ere, blokeen barruan gauzatuko da. Ildo horretan, AEBetako hauteskundearen emaitzak etorriko diren neurri protekzionistetan pentsatzera gonbidatzen gaitu. Horregatik, neurri hipotetiko horien

balizko inflazio efektuaren aurka ohartarazten hasi dira ahotsak, azken urteetan izandako prezio mailaren igoerari boto emaile amerikarrek eman dioten garrantzia ikusita.

Oraingoz, eskura ditugun azken datuen arabera (azaroko KPI), inflazioaren azken milia AEBetako ekonomiari aurre egiten ari zaio, eta Erreserba Federalak interes tasak murrizten jarraitzen du. Consensus Forecast panelak oinarrizko 25 puntuko beherapena aurreikusten du urtea amaitu aurretik, eta beste hiru jaitsiera 2025ean. Urtearen amaieran tasak %3,5 eta %3,75 artekoak izatea aurreikusita dago, eta inflazio igurikimenak %2,5 ingurukoak izatea. Hala ere, interes tasa errealek arlo positiboan jarraituko dute, baina ikusteko dago nahikoa uztegarri izango ote den bere potentzialaren ginetik hazten ari den eta BPGaren %5etik jaiste zaila dirudien defizit batean.

## EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025
Munduko ekonomia	2,7	2,6	2,6	5,6	3,9	2,8
AEB	2,9	2,7	2,0	4,1	2,9	2,4
Kanada	1,5	1,2	1,7	3,9	2,4	2,0
Japonia	1,5	-0,2	1,2	3,3	2,6	2,3
Eurogunea	0,4	0,8	1,0	5,4	2,4	1,9
Europar Batasuna	0,5	0,9	1,3	7,2	2,4	2,1
Alemania	-0,3	-0,1	0,4	5,9	2,3	2,0
Espainia	2,7	3,0	2,2	3,5	2,8	1,9
Frantzia	1,1	1,1	0,8	4,9	2,1	1,4
Herbehereak	0,1	0,8	1,5	3,8	3,3	2,8
Italia	0,7	0,5	0,8	5,7	1,1	1,7
Erresuma Batua	0,3	0,9	1,3	7,3	2,5	2,6
Asia Pazifikoa	4,2	3,7	3,8	2,1	1,7	1,8
Ekialdeko Europa	2,9	3,0	2,6	16,7	14,3	9,1
Latinoamerika (Venezuela ezik)	2,2	1,9	2,2	23,8	15,2	6,5

Iturria: Consensus Forecasts (2024ko abendua).

Europar Batasuneko ekonomiek beren ekonomia nagusiek (Espainiakoak izan ezik) erakutsitako ahultasuneko zantzuek markatutako urte amaierari aurre egin behar diote. Europako Batzordeak azaroan argitaratu zituen aurreikuspenak, eta 2025erako Europar Batasunaren jarduera 2024tik hobetuko zela aurreratu zuen: %1,5eko hazkundea, 2024rako aurreikusitakoa baino sei hamarren gehiago, eta 2026rako %1,8raino bizkortuko da. Eurogunearentzat, aurreikuspenak ez dira hain baikorrak: EB baino bi hamarren gutxiago haziko da, Alemaniak, Frantziak eta Italiak pisu erlatibo handiagoa dutelako. Bestalde, EBZren proiektio makroekonomikoek tonu ezkorragoa hartu zuten urteko azken bileran, eta 2025erako espero zen hazkundea %1,1eraino jaitsi zuten, nahiz eta helburuaren inguruan inflazio normalizatuaren igurikimena izan. Igurikimenen okertze hori Consensus Forecast erakundearen azken panelean ere islatzen da, eurogunearen hazkundea %1era mugatzen baitu.

Jardueraren hobekuntzaren atzean, 2024arekin alderatuta, soldata errealeko igoera egongo da, lan merkatu erresiliente baten eta inflazioaren moderazioaren ondorioz, eta horrek Europako familien erosketari ahalmena handituko du. Hala ere, familien konfiantza murrizteak eta interes tasa altuek aurrezteko pizgarriak indartu litzakete, eta, beraz, kontsumoaren hazkundea, 2025erako aurreikusitako susperraldiaren euskarri nagusia, zuhur mantendu liteke. Kapital eraketa gordina 2025ean haziko da berriro, 2024an izandako uzkurduraren ondoren, nahiz eta ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioaren hazkunde bidearen proiektioa estandar historikoen azpitik mantenduko den, bai Batzordearen bai EBZren arabera, ziurgabetasun handia eta manufaktura sektore batzuetan gertatzen ari diren egiturazko aldaketak direla eta. Hain zuzen ere, Europako manufaktura lehiakortasun erronka iraunkorrak direla eta, esportazioen bilakaera oraindik apala izango da datozen hiru hilabeteetan, 2025aren amaieran batez besteko historikoa baino hazkunde tasa txikiagoekin suspertu arte. Nolanahi ere, esportazio merkatuetako kuota europarrak proiektio horizontean zehar murriztea aurreikusten da, eta hori guztia munduko muga zergak aldatu gabe mantenduko direla onartuta, eta hori, lehen esan bezala, ez dago bermatuta.

Hain zuzen ere, Alemaniako ekonomiaren etorkizuneko jardunari buruzko zalantzak areagotu egin dira: 2024an jarduera ekonomikoak behera egin du, eta datorren urterako Consensus Forecast panelaren batez bestekoaren arabera, hazkunde aurreikuspena %0,4koa izango da; Bundesbankek berak, berriz, ekainean aurreikusitako %1,0tik %0,2ra jaitsi du. Aurreikuspen horiek industria produkzioaren beherakadaren joera gero eta nabarmenago baten itzuleraren hipotesietan oinarritzen ziren. Joera hori 2017an hasi zen, eta pandemia osteko errebotek soilik eten zuen. Gaur egun, panelaren batez bestekoaren arabera, industria ekoizpenak %4,2ko jaitsierarekin itxiko du urtea, eta datorren urtean ia laua geratuko da (-%0,1), hau da, duela hiru hilabete espero zena baino puntu bat gutxiago. Azterketek hainbat oztopo aipatzen dituzte, hala nola inbertsioen defizit kroniko jakin bat, energiaren prezioen igoeraren ondoriozko lehiakortasunaren galera, esportazioen mendekotasuna bere kontsumo propioa sortzeko gero eta gaitasun handiagoa duen Txinarekiko, eta estimulu publikoak aplikatzeko ezintasuna. Erreferentzia gisa, Europako Batzordearen FIGARO datu basearen arabera, Alemaniako 6,7 milioi

enplegu Europar Batasunak kide ez diren herrialdeetara egindako esportazioen mende zeuden 2022an, 5,6 milioi zuzenean eta 1,1 milioi gainerako estatu kideen esportazioen mende.

EAEko enpresen beste esportazio merkatu handiak ere, Frantziak, beherantz berrikusten ditu bere ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak, 2024an %1,1eko hazkundera izan ondoren. Bai Europako Batzordearen bai Consensus Forecasts panelaren arabera, datorren urtean %0,8 haziko da, eta ia hazkunde guztia familien kontsumoan oinarrituko da; izan ere, enpresen inbertsioa uzkurto eta industria ekoizpena ia laua geratzea aurreikusten da, Alemaniaren kasuan bezala. Kontsumo publikoa ere ez da haziko edo oso modu arinean egingo du, 2024an %2,0 baino gehiago handitu ondoren, aurrekontuen defizita murrizteko ahaleginen ondorioz. Hala eta guztiz ere, 2024an jada BPGaren %6 gainditu zuen defizita oraindik ere handia izatea espero da 2025ean (%5,3), indarrean dagoen ezegonkortasun politikoaren erdian luzatutako aurrekontuekin. Egoera horrek ez du bide fiskalaren zuzenketa zorrotzik iragartzen BPGaren %45etik gorako presio fiskala duen herrialde batean, moneta batasuneko altuena.

#### ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2024ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024		2025				2025	2026
	IV	2024	I	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>	<b>2,6</b>	<b>2,4</b>	<b>2,1</b>	<b>2,0</b>	<b>2,3</b>	<b>2,0</b>
Kontsumo pribatua	3,0	2,7	2,8	2,5	2,1	2,1	2,3	2,1
Kontsumo publikoa	5,0	4,7	4,3	4,2	2,7	2,1	3,3	1,9
Kapital eraketa gordina	1,9	2,0	2,4	3,9	5,4	5,3	4,3	4,0
- Taldeko inbertsioa	1,1	1,3	3,5	5,6	6,3	5,7	5,3	4,1
- Landatutako aktiboen	5,5	5,5	4,5	4,0	3,5	3,3	3,8	2,5
- Eraikuntzako inbertsioa	2,8	2,6	1,9	3,3	5,6	5,5	4,1	4,1
Barne-eskaria	2,9	2,7	3,0	3,1	2,8	2,7	2,9	2,4
Esportazioak	4,3	3,4	3,3	3,1	2,7	2,4	2,9	1,9
Inportazioak	3,9	2,3	4,5	5,2	5,0	4,4	4,8	3,2

Iturria: Ceprede.

Espainiako ekonomiak aurreikuspenak gainditzen jarraitzen du, eta Ceprederen azken aurreikuspenen arabera, 2024an ekoizpena %3,0 haztea lortuko du. 2025ean eta 2026an hazkunde hori %2,3 eta %2,0raino motelduko da, eta, hala ere, jarduera Europako ekonomiarena baino askoz gehiago haziko da. 2024ko hazkundera kontsumo publikoko gastuan (%4,7), zerbitzuen esportazioetan (%9) eta ez-egoiliarren kontsumoan (%11,7) oinarritu zen, baina 2025ean eta 2026an hazkunde orekatuagoa aurreikusten da, non ondasunen esportazioek

(%3,1 eta %2,3) eta kapital eraketa gordinak (%4,3 eta %4,0) gora egingo duten. Enpleguaren hazkundeak, landunetan neurtuta, moteldu egingo du hazkundera, %1,6ra 2025ean eta %1,5era 2026an. Horrek, biztanleria aktiboaren hazkunde txikiagoarekin batera, langabezia tasa murriztea ekarriko du, 2024an aurreikusitako %11,5etik 2025ean aurreikusitako %11,2ra eta 2026an %10,8ra, tasa horiek oraindik oso altuak baitira Europako testuinguruan.

Antzeko zentzuan, Espainiako Bankuaren azken aurreikuspenek ere hazkunde neurritsuagoa aurreikusten dute 2025ean eta 2026an (%2,5 eta %1,9), kontsumo pribatuaren hazkundera oinarrituko dena (%2,9 eta %2,0), errenta erabilgarriaren hazkundera eta familien konfiantza handiagoaren ondorioz, eta pandemia aurreko mailarekiko oraindik oso atzeratutako inbertsioaren ondorioz (%3,1 eta %2,2), kanpo sektorearen ekarpena hamarren bat negatiboa izango den bitartean. Inflazioa murrizteaz gain (%2,1 eta %1,7), erakundeak aurreikusten du, finantza publikoen ikuspegitik, administrazio publiko guztiek BPGarekiko duten finantzaketa beharra murriztu egingo dela (%2,9 eta %2,7), baita zorraren ratioa ere, 2025ean %102,6ra eta 2026an %102,5era arte.

Hiruhileko honetako aurreikuspenen ekitaldirako, Euriborraren bilakaerari eta euroak dolarrekiko duen truke tasari buruzko hipotesiak ez dira aldatu, hirugarren hiruhilekoko emaitzak duela hiru hilabete izandako kasuarekiko duen eragina izan ezik. Esportazioko merkatuen ekonomia adierazgarrien portaerak aldaketa txiki batzuekin jarraitzen du 2025erako: Espainiako BPGaren eta eurogunearen hazkundera bi hamarren txikiagoa da (%2,3 eta %1,3, hurrenez hurren), eta ELGarena, berriz, mantendu egin da. 2026ari dagokionez, Espainiako ekonomiaren hazkundera hiru hamarren beherantz berrikusi da, eta lau hamarren euroaren eremuko ekonomien kasuan. Espainiako ekonomiaren prezioei dagokienez, kontsumoko prezioek %2,0ko hazkunde egonkorra izango dute, eta esportazioen prezioek, berriz, %4,3 egingo dute gora 2025ean, bi urteko aldakuntza txikiagoaren ondoren.

Hipotesi horietatik eta hiruhilekoko kontabilitatearen argitalpenetik abiatuta (kasu honetan, gainera, bat etorri da serie historiko osoaren berrikuspenarekin, erreferentziazko urte berrira aldatu baita urteko kontabilitatea), agertoki makroekonomiko berri bat kalkulatu da, non aurreikusten den 2025ean hazkundera (%2,0) 2024koa (%1,9) baino apur bat handiagoa izango dela, barne eskariaren hobekuntzak (%2,1) eta lan merkatu dinamiko batek bultzatuta; eskaintzaren aldetik, berriz, industriak hobera egingo du 2025ean, Europako ekonomiekin batera, eta bilakaera hori aipatzen ari diren arriskuen mende egongo da. 2026an, hazkunde erritmoa moteldu egingo da, enplegu sorreraren intentsitatea moteldu egingo delako, eta pixkanaka normalizatuz joango da (%1,2, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta). Horrela, barne eskaria (%1,9) ere motelduko da, eta zerbitzu sektorearen hazkundera txikiagoa izango da (%1,7).



## AURREIKUSPENAK EGITEKO HIPOTESIAK (2024ko abendua)

Mailak eta urte arteko aldakuntza tasak

	2024		2025				2025	2026
	IV	2024	I	II	III	IV		
Euriborra (3 hileko)	3,2	3,6	3,2	2,9	2,7	2,4	2,8	2,3
Euro dolar truke tasa	1,086	1,087	1,087	1,087	1,147	1,097	1,105	1,126
Espainiako BPGa	3,0	3,0	2,6	2,4	2,1	2,0	2,3	2,0
ELGAren BPGa	1,7	1,4	1,7	1,8	1,9	1,9	1,8	1,8
Euroguneko BPGa	1,2	0,8	1,3	1,4	1,3	1,3	1,3	1,4
Espainiako konts. prib. deflakt.	2,1	3,9	1,4	1,6	1,9	2,2	1,8	2,2
Espainiako ond. esport. deflakt.	2,2	-0,2	3,7	4,5	4,7	4,4	4,3	2,5

Iturria: Ceprede eta Europako Banku Zentrala. Hipotesien itxiera data: abenduaren 9a.

Familien gastuaren bultzadak EAEko ekonomiaren jardueraren hazkundearen jarraibidea markatuko du 2025ean, enpleguaren hazkunde handiaren eta soldata errealen susperraldiaren ondorioz, bai 2024an, bai 2025ean aurreikusten den igoeraren ondorioz. Interes tasa txikiagoek kontsumoaren kostu erlatiboa merkatuko dute aurrezkiaren aldean, eta horrek, aurrezki tasa txikiagoarekin eta inflazio kontrolatuarekin batera, kontsumo pribatuaren %2,0ko hazkundera aurreikusten du. 2026an, familien kontsumo gastuaren dinamika ez da hain ona izango (%1,6), aurreko urteetako aurrezki metatuaren eragina amaitu ondoren eta enplegua sortzeko erritmoa leundu eta gero. Kapital eraketa gordina ekoizpen osokoa baino erritmo biziagoan haziko da 2025ean (%2,4) eta 2026an (%2,6), finantzaketa kostuen merkatzeak, Next Generation EU funtsen bidezko bultzada publikoak eta etorkizun makroekonomiko eta geopolitiko txikiagoaren eta ziurgabetasun txikiagoaren igurikimene bultzatuta.

Horiek horrela izanda, barne eskariak 2024ko joerari jarraituko dio, eta EAEko ekonomiaren hazkunde iturri nagusia izango da datozen bi urteetan; kanpo eskariaren ekarpena, berriz, hamarren batean baino ez da negatiboa izango, Europako industriaren zailtasunek baldintzatuta. Negatiboa izan arren, hala izango da inportazioen erritmoa esportazioena baino biziagoa izango delako. Hala ere, gora egingo du urteko %3,0 inguruko tasetan, 2024an aurreikusitako %1,0ko tasarekin alderatuta.

Industria 2024ko itxierarako kalkulaturakoa (%0,8) baino erritmo biziagoan haziko da datozen bi urteetan, zehazki, %1,4 2025ean eta %1,6, berriz, 2026an, azken hori EAEko ondasunak inportatzen dituzten ekonomia nagusien hazkunde handiagoak markatuta. Hala ere, hazkunde hori arindu egiten da aurreko aurreikuspenekin alderatuta, Europako jardura adar jakin

batzuen etorkizunarekiko gero eta zalantza handiagoak daudelako, eta automobilgintza da pisu espezifikoa handiena duena, energian intentsiboak diren beste adar batzuekin batera. Hala eta guztiz ere, nabarmentzekoa da bi hiruhilekotan jarraian hazkundea negatiboa izan ondoren, hirugarrenean hazkunde handia izan dela (%0,9). Bestalde, zerbitzuen sektorearen jarduerak erritmo onean hedatzen jarraituko du (%2,1 2025ean eta %1,7 2026an), baina azken urtean baino indar gutxiagorekin, biztanleria aktiboaren hazkundera eta enplegu sorrera nabarmenari esker. Bestalde, eraikuntzaren sektorean dinamismo handiagoa aurreikusten da 2025ean eta 2026an (%2,2 eta %2,3, hurrenez hurren), Euriborraren jaitsierak eskaria suspertzea lortu baitu, koiunturako adierazle batzuek erakusten duten bezala.

#### EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2024ko abendua)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2024	2025				2025	2026
	IV		I	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>1,8</b>	<b>1,9</b>	<b>1,8</b>	<b>2,0</b>	<b>2,1</b>	<b>2,0</b>	<b>2,0</b>	<b>1,7</b>
Azken kontsumoa	1,8	1,9	1,9	2,0	2,1	2,0	2,0	1,6
Kontsumo pribatua	1,6	1,8	1,9	2,0	2,1	2,0	2,0	1,6
Kontsumo publikoa	2,2	2,2	1,8	2,1	1,9	1,8	1,9	1,6
Kapital eraketa gordina	2,0	1,9	2,1	2,5	2,6	2,6	2,4	2,6
Barne eskariaren ekarpena	1,8	1,9	1,9	2,2	2,2	2,1	2,1	1,9
Kanpo saldoaren ekarpena	0,0	0,0	-0,2	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-3,4	1,1	-3,3	-3,0	-0,9	0,7	-1,7	1,3
Industria eta energia	0,6	0,8	1,0	1,8	1,4	1,5	1,4	1,6
Eraikuntza	2,0	1,6	2,1	2,5	2,2	2,1	2,2	2,3
Zerbitzuak	2,3	2,3	2,0	2,1	2,3	2,1	2,1	1,7
Balio erantsi gordina	1,8	1,9	1,7	2,0	2,1	2,0	1,9	1,7
ekoizkinen gaineko zergak	2,1	2,1	2,3	2,1	2,3	2,3	2,2	1,9
BPG nominala	4,2	4,7	4,0	4,2	4,4	4,1	4,2	3,7
BPGaren deflatoea	2,4	2,7	2,2	2,1	2,2	2,1	2,2	1,9
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,7	1,4	1,4	1,5	1,4	1,4	1,2
Landunak (BJA)	1,8	1,9	1,5	1,5	1,2	1,2	1,3	1,0
Langabezia tasa	7,2	7,4	7,3	6,8	6,6	6,7	6,9	6,7

Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

BPGaren deflatorea %2,7 handituko da 2024an, %2,2 2025ean eta %1,9, berriz, 2026an, inflazioaren helburuarekin bat datozen tasetara hurbilduz. Hala ere, zenbait deflatorek, hala nola esportazio, inportazio eta industriarenak, hazkunde handia izan zuten pandemiaren ondoren (industriarena, adibidez, ia %20 handitu da 2021eko lehen hiruhilekotik) eta hazkundera normalizatu dute 2023an eta 2024an. Horrela, aurreikusitako BPG nominalaren hazkundera %4,2koa izango da 2025ean, eta %3,7koa 2026an; horrela, 101.102 eta 104.808 milioi eurora iritsiko da horietako bakoitzean.



Hiruhilekoko kontabilitateko enpleguaren azken datuak lehendik aurreikusi zen moteltzea berretsi zuen: %1,6 areagotu zen urte arteko terminoetan eta gutxigatik iritsi zen %0,3ra hiruhileko arteko tasan. Laugarren hiruhilekoko lehen bi hilabeteetako afiliazio datuek argi uzten dute hirugarren hiruhilekoan hasitako joerari eutsi zaiola. Hala eta guztiz ere, 2024ko balantzea oso positiboa da 17.000 enplegu sortu direlako, 19.000 landun gehiago daudelako eta langabezia tasa %7,4ra jaitsi delako. Adierazi den bezala, 2025ean eta 2026an enplegu sorrera apalagoa izango da: lanaldi osoko 14.000 eta 12.000 lanpostu baliokide sortuko dira eta langabezia tasa 2004. eta 2005. urteetatik ikusi gabeko mailetara murriztuko da. Nolanahi ere, lan merkatuaren bilakaeran ziurgabetasun handia dago; izan ere, biztanleria aktiboaren hedapena migrazio fluxu garbien mende egongo da, eta fluxu horiek eragina izango dute jatorrizko herrialdeetako testuinguru ekonomiko eta politikoen bilakaeran, bai eta araudiaren arloan izan daitezkeen aldaketetan ere.

### 2024ko eta 2026ko aurreikuspenak (I)

#### Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina

Enplegua




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Eustatek egiten duen hiruhilekoko kontabilitatearen arabera urteko azken hiruhilekoari dagokion datua falta bada ere, 2024rako aurreikuspenen tartearen ekonomia zuzendaritzak eta laboralkutxak kalkulaturako %1,9tik Hispalinkek aurreikusitako %2,5era bitartekoa da. Aurreikuspenen arteko konparagarritasuna testuinguruan kokatzearen, zenbatespen tarte horren hedadura erakunde batzuek datu iturri gisa INEk sortutako eskualdeko kontabilitatea (urteko maiztasunekoak baita) erabiltzea aukeratzearen ondorio da. Aukera hori arrazoitua da, haien aurreikuspen ekitaldiak autonomia erkidego guztietara hedatzen direlako. Aurreikuspen horiek egin zirenean, eskualdeko kontabilitatean argitaratutako azken datua 2022koa zen, eta, beraz, bere garaian 2023ko kontabilitate ofizialik ez zuenez, ezta 2024ko hiruhilekoko ere, izatera desberdineko zenbatespenak egiten ditu.


## 2024ko eta 2025eko aurreikuspenak (II)

### Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2024



Aurreikuspen panela 2025



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza (2024ko abendua), Ceprede (2024ko abendua), Laboral Kutxa (2024ko abendua), Confebask (2024ko abendua), Euskal Ganberak (2024ko abendua), Hispalink (2024ko abendua), BBVA (2024ko urria) eta Funcas (2024ko uztaila).